




ARGIA



APUSTU ETXEA

PREKARIOEI
ZERBITZATUTAKO
GOZOKI POZOITSUA

18+

» EKUADORREKO INGURUMEN GATAZKAN CHEVRON MULTINAZIONALA JO DUTE GARAILE ARBITRO PRIBATUEK

» JARRAITIK ERNAI ETA AITZINARA: GAZTE ANTOLAKUNDEAK 40 URTE

» SONIA GONZÁLEZ: "IZAERA ERAIKI DUGU BETI AURRERA BEGIRA, ATZERA BEGIRATU BARIK"

LANDAREAK LANTZEN 2019

LURRA LANTZEKO AGENDA-LIBURUA

HILABETEARI
LOTUTAKO LANAK
BARATZE,
FRUITU BARATZE,
LORE BARATZE
ETA BASOAN

.....
ILARGIAREN
BI ZIKLOAK,
ONGARRIKETA,
LANDARE LAGUNTZAILEAK,
TRATAMENDU NATURALAK,
LUARRA NOLA EGIN...

**Jakoba Errekondoren jakintza eta
Antton Olariagaren ilustrazioak.**
Aurtengo gaia: lan-tresnak

12€

Bidalketa gastuak
4€

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

ARGIA
argia.eus

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eus

f t i @bizibaratzea

*Jakoba Errekondok
sinatzeko aukera



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Chevron-Ekuador: epaile pribatuek honela menderatu dute estatua

IRITZIAK

- 17 Baleren Bakaikoa Azurmendi
- 18 Iñaki Barcena
- 19 Mikel Irizar
- Itziar Bardaji Goikoetxea
- 20 Irati Elorrieta



Sonia Gonzálezek eleberria eta poesia landu ditu idazle gisa. Hamahiru urtez isilik egon ostean, 'Erreka haizea' (Susa) saioa plazaratu du.

ARGAZKIA: DANI BLANCO

- 38 DENBORAREN MAKINA
- 39 DENBORA-PASAK
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIAKO AZOKA
- 43 ARGIAKO KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 DONOSTIAKO ZINEMALDIA
- 52 ARGI-KONTRA: KATTI POCHELU
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ILUSTRAZIOA: XABIER SAGASTA

SAKONEAN

- 12 | Laura Martinena: "Gure egiteko modua bereziki emakumeei zaie erakargarri" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Jokoa normalizatzea, apustu arriskutsua? / Jon Torner Zabala
- 27 | Gazte memoriari heltzea, Jarraitik Ernai eta Aitzinara 40 urte / Xalba Ramirez
- 32 | Comète: korapiloak memoriaren sarean / Ion Olano Carlos
- 36 | Hitzun Gazteen Topaketa Gasteizen: Etorkizuneko liderrak elkar ezagutzen / Miel Anjel Elustondo
- 44 | Sonia González: "Ez gara sekula guk uste dugun modukoak, ezta idazten dugunean ere" / Mikel Asurmendi

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Gonzalez de San Pedro, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Nahia Ibarzabal, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetza: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus



PANORAMA

Kolore guztiak faxismoaren kontra

Oso paradigmaticoa izan da Kataluniako urriaren bateko lehen urteurrenaren harira gertatutakoa: herritarren protesta "koloretsuak", segurtasun indarren biolentzia eta agintarien pasibitatea. Aktoreen rola ordea aldatu egin da. Iaz Espainiako poliziak eta guardia zibilak aritu ziren bozkatzera joan ziren kataluniarren hezurak apurtzen. Aurtengoan, aldiz, Espainiako polizien defentsan aritu dira Eskuadra Mossos kalean. Baita erruz jardun ere: 24 lagun jipoitu eta zauritu dituzte, tartean, argazki honen egilea; hatza apurtu diote lanean ari zela.

Argazkia: Victor Serri (La Directa) • Testua: Axier Lopez



t “Duela urtebete Catalunyan egon ginen herri batek bere duintasuna zelan defendatzen zuen ikusten. Ikusitakoa eta sentitutakoa eta ikasitakoa ez dut nik hain erraz ahaztuko. Gora Herria!”

@JMendiolaogitia

t “Gure eskubideak defendatuz, frogatu genuen Estatu autoritario batek ezin gaituela gelditu. Trabak jarri dizkigu, baina ez gaitu eroriaraziko. Urriaren 1 hartan irabazi egin genuen eta lehenago edo geroago, bozkatu genuen Errepublika lortuko dugu”

@renatovegao

t “Urtebete inoiz bizi izan dudak ekintza kolektibo potenteena Katalunian egin zutenetik. Bizipen ahaztezinak Bartzelonan. Egia kontatzeko eskatu ziguten, hala egin genuen. Bozkatu zuten”

@Txapisotegi



ECUADOR ETXEA

Indarkeria matxista eta “justiziaren porrot erabatekoa”

Argia

Irailaren 25ean Maguette Mbeugouri hil zuen bikotekideak Bilbon, labankadaz. Mutrikun atxilotu zuen Ertzaintzak gizona, Mbeugou etxean aurkitu ostean. Autopsiaren arabera, emakumeak 28 eta 36 ordu inguru zeramatzan hilik aurkitu zutenerako.

Bi aldiz salatu zuen Mbeugouk indarkeria matxista pairatzen ari zela. Lehenbizikoz, Bilboko Udaltzaingoa jarri zuen salaketa 2017an, etxetik ihes egin ostean. Udalak kasu horietarako propio atondutako etxe batean hartu zuten, bi alabekin batera. Auzia zeraman epaileak, baina, emakumearen babes eskaerak atzera bota eta gizona absolutu zuen, “indarkeria

matxistaren froga nahikorik ez zegoelako”. Gizonari ez zioten inolako kautelazko neurririk ezarri.

Medikuarenean ere, salaketa

Denboran gertuago, Mbeugouk medikurenean jakinarazi zuen indarkeria jasaten ari zela. Artatu zuen medikuak Mbeugou zaintzeko izapideak martxan jarri zituen. “Dagoeneko dena zegoen bidean, baina ez dugu lortu babestea”, adierazi du medikuak bere Twitter kontuaren bitartez.

Juan Luis Ibarra EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko presidentek berak aitortu duenez, Mbeugouren kasua “justiziaren porrot erabatekoa” da. Manifestazioak egin dituzte egunotan, gertaturikoa salatzen (irudian).

“Egiaren aitortza, justizia, kalte ordaina eta berriz ez errepikatzeko bermea eskatzen dugu”

EUSKAL GIZARTEKO EHUN LAGUN INGURU

2012ko apirilean hil zen Iñigo Cabacas, Ertzaintzak jaurtitako gomazko pilotakada batek buruan jota. Heriotza argitzeko datorren urriaren 15ean ahozko epaiketa hasiko dela-eta, justizia eskatzeko manifestua aurkeztu dute. “Gertatutakoa argitu eta erantzuleak nortzuk izan ziren jakiteko ikerketa erraztu beharrean trabak besterik ez dizkiete jarri gaztearen hilketa salatu dutenei. Era berean, behin eta berriro erantzuleak babesten saiatu dira. Erantzuleek inolako pribilegiarik ez izatea” eskatu dute, besteak beste. **2018-09-29**



GAIZKI ERRANKA

Musika



Santi Leoné
@ororostorm

Ez naiz dantzari ona. Ez dakit erritmoaren arabera mugitzen. Horregatik, pozten naiz kazetaria ez naizelako. Espainian franko ugari den kazetari espezie batek ederki jakin behar duelako musikak zer eskatzen duen interpretatzen. 2016an, adibidez, Felipe González Espainiako presidente ohiak Ser irratian deitoratu zituen PSOEn emaitzak: "Euskal Herrian ez ginen sekulan hain gaizki ibili, egin genituen gauzak egin da ere, ta-pa-pa". Zer gauza egin zenituzten, bada?, galdeginen ziokeen kazetari normal batek, baina isildu egin zen -zer egin zuten bazekielako, edo gizon boteretsuei ez zaielako horrelako galderarik egin behar-. Lapsusa deitu zioten egunkari gehienek. Gonzálezen adierazpenari, ez kazetariaren isiluneari.

Egun hauetako melodia, berriz, eskandaluarena da: espantuak egin behar dira 2006an orduan fiskal eta gaur egun ministro den Dolores Delgado estatuko estoldetan zebilen komisario batekin bazkaldu zuelako. Hara! Estatuan estoldak badira! Eta PSOEk bazuen horren berri! Nork pentsatuko zuen! Gainera, zer eta maritxua deitu zion orduan epaile eta gaur ministro den Grande-Marlaskari. Kritikarik merezi ez duen horren kontura kritikatuaren kritikatzu saindu bihurtuko dute.

Valtòny rapero erbesteratuak kritika egokiagoa egin zion epaile-ministroari, Bruselan emandako elkarrizketa batean: "Faxista da". Oraingoan kazetaria, Cristina Pardo iruindarra, ez zen isildu: eta zergatik diozu faxista dela?, egin zion galdera -Iruñekoa izanik ere, torturaren berri ez zuelako, edo zilegi delako ihes egin behar izan duen jende botererik gabea elkarrizketetan pixka bat estutzea-.

Noiz isildu, noiz harrituarena egin, noiz zorrotza izan. Belarri ona behar dute zenbait kazetarik unean uneko musika egoki interpretatzeko. Baina alde z aurretik partitura emanen diete, ezta? ■

EZ HANKA EZ BURU!



EUSKARA OFIZIAL"IZAI" DUEN
HERRIKO ETXE BATEK EZ LUKE
GURE HIZKUNTZAREN ALDE
GEHIAGO EGIN BEHAR?

SEGUR DA...
OREKA ATZEMAN
BEHAR DA...
EZ DA HAIN XINPLE...
GOGOETATU BEHARKO
GENUKE...ESTRATEGIA BAT
ADOSTU...AGIAN BESTE
ARO GEOLOGIKO
BATEAN...



ADUR

ANALISIA



Sei urte espetxera manifestazio baten berri emateagatik?



Lander Arbelaiz Mitxelena

@larbelaitz

ARGAZKIA: SEMANDO ESCONTRA LA REPRESIÓN

“Espetxean sartzen banaute, lehenik eta behin, egin ez dudana zer baitengatik izango da, nik ez baitut inor jo; eta bigarrenik, nire ideia politikoengatik litzateke, beraz, neure buruarekin harro joango nintzateke, poliziaren muntaien erruz kartzelan dauden beste asko bezala”.

Iruñean bizi den Jorge Correa kazetariaren hitzak dira, *El Salto* egunkarian egindako elkarrizketan esanak. Boro gisa ezagunago, 2014ko martxoaren 29tik garai zailak bizitzea egokitu zaio. Urriaren 3an epaitu dute, *La Haine* eta *Kaosnlarred.org* hedabide digitalentzat manifestazio baten berri ematen ari zela atxilotu baitzuten. Bi poliziarri eraso egin izana egotzen diote. Berak erabat ukatzen du salaketa, bere inguruan zeuden kazetariak egiten duten gisan, eta hauek grabatutako bideoek hala erakusten dutenez.

Ahantzuran erorarazi dituzten arren, Espainiako Estatuan gauza asko zailantzan jarri zituen mobilizazio ziklo handia kaleak hartua zen garai hartan. *Duintasunaren Martxek* milioi bat lagun baino gehiago atera zituzten kalera Madrilen. Poliziaren kargen ostean lehertutako istiluek bide eman zieten hurrengo egunetan atxilotuak askatzeko eskatuz

deitutako manifestazioei, ikasleen mobilizazioei, herri asanbladei eta plaza berreskuratzen saiatu zen kanpaldiari, besteak beste. Borroka astea borobiltzeko *Monarkiarri Jake* lelopean manifestazioa deitua zen Madrilen bertan. Poliziak ez zien bertan bildutakoei ateratzen ere utzi, protestari eta kazetariak bultzaka hartuz. Manifestazioa bertan behera geratu arren, tentsio uneak bizi izan ziren.

Borok kontatzen duenez, agenteek bultzaka zeramaten talde bat ikusi eta argazkiak egitera hurbildu ziren bikoitekidea eta bera. Kamera eskuetan ikusi zutenean, poliziak beren aurka egin zuen. Gertaeren berri ematen ari ziren beste kazetariei ere eraso egin zieten poliziek, lesioak eraginez, kamera bat hautsiz eta profesional bat konorterik gabe utziz.

Inongo polizia-aurrekaririk ez zuen pertsona hau, norbaiten begi puntuan egotera igaro zen, handik gutxira sare sozialetan bere iritziak emateagatik atxilotu baitzuten *Armiarma Operazioan*.

Bigarren epaiketa izan du hau. Bere aldeko manifestuak ongi dioen gisan, zentzudunena absoluzioa eta gau hartako polizia jardunaren ikerketa sakona eskatzea da. Adierazpen askatasuna eta kazetaritza kritikoa egiteko eskubidea daude jokoan, beste behin.

EKONOMIAREN TALAIAN

Pentsioak blindatu




Juan Mari Arregi

Toledoko Itunak adostu du berriz ere pentsioen igoera lotzea KPIarekin, erosteko ahalmena mantentzeko. Egunotako albiste ekonomiko nagusia izan da. Baina akordio lotesle hori ez da behin betikoa. Ez dago garbi, ezta ere, zer esan nahi den “KPI erreala” aipatzean. Espainiako Gobernuak dauka azken hitza. Hasteko, Espainiako presidentek New Yorken esan du Toledoko Itunean adostutakoa bere egingo duela. Bistakoa da pentsiodunen mobilizazioak, eta bereziki euskal pentsiodunenak, erabakigarriak izan direla talde politiko guztiek akordioa onartzeko.

Albistearen pozgarria den arren, akordio hori oraindik ez da nahikoa kalean dauden aldarrikapenak eta oihuak kontuan baldin baditugu, astelehen honetan Bilbon are ozengoa gainera. Akordio hori nahikoa eta duina izan dadin, euskal pentsiodunek uste dute beste hiru gauza onartu beharko lirakekeela. Lehenik, pentsioak blindatzea eta ez uztea aldiari aldiko gobernuaren nahien eta ateraldien menpe, PPrentz gobernuarenak jasan ditugun bezala. Bigarrenik, KPI erreala hori zehaztea, urtero, aditu independenteen batzorde batean. Eta azkenik, pentsiodun guztientzat gutxieneko pentsio duina bermatzea; Euskal Herriaren kasuan 1.080 euro lirakeke hilean, hainbat plataformak aztertu dutenez.

Nola blindatu pentsioak? Garbi dago, ulertu nahi duenarentzat. Gardenena da Espainiako Estatuako Konstituzioak barneratzea blindatze hori bere funtsezko artikulatua eta erkidego bakoitzak –EAEk eta Nafarroak ere– bere araudian txertatzea ondoren. Betiko gobernuen esku utziz gero, alderdi popularrak azken urteetan egin duen gauza bera egiten uztea litzateke: krisi ekonomikoaren aitzakian pentsioak praktikan izoztea.



GURE ESKU DAGO

“Demokraziaren aldeko defentsa” aldarri Gernikan

GERNIKA. “Espainiako estatuaren errepresioa salatuz, urriaren 1aren izaera demokratiko, baketsu eta eredugarria” gogoratu dute irailaren 29an Gernikan. Hainbat ordezkari politiko eta kulturek hartu dute parte Gure Esku Dagok antolatutako ekitaldian, tartean, bideo bidez, Carles Puigdemontek. Preso politikoei, exiliatuei, errepresaliatuei eta haien senideei “elkartasun osoa” ere adierazi nahi izan die eta besteak beste Picassoren *Gernika* koadroaren mural erraldoia aurkeztu dute, auzolanean egina

Ikastetxeak babestu egin du abusuak egiteaz akusatua

Nahia Ibarzabal

@Nahialbarzabal

Opus Deiko Gaztelueta ikastetxeak webgune bat sortu du, adin txikiko bati abusuak egin izana leporatzen zaion irakasleari babesa erakusteko eta biktima “gezurretan dabilela” jakinarazteko.

Gaztelueta kasua

Urriaren 4tik 11ra Bizkaiko Probintzia Auzitegian epaituko dute “Gaztelueta kasua”. Irakaslearentzat hiru urteko kartzela zigorra eskatu du fiskaltzak eta akusazio partikularrak berriz, hamar urteko espetxe zigorra.

Familia, suminduta

Ikastetxeak webgunea sortzeak sumindu egin du ikaslearen aita Juan Cuatrecasas. Adin txikikoaren eta familiaren bertsioa behin eta berriz zalantzan jartzen dela dio. “Gainera, webaren berri emateko gutunak banatu zaizkie ikasleei”.

Baloreak

“Ikastetxearen jarrera iruzurgilea, ardurgabea eta gezurtia da eta gainera beraien baloreekin, hau da, balore katolikoekin bat ez datorrena”, salatu du aitak. Hedabideekin harremanetan jarri da familia, euren egia zabaldu asmoz.

AKTIBISMOA



21

pertsona hil dituzte gutxienez Guatemalan aurren, giza eskubideen alde aritzeagatik. Azkena, Juana Ramirez Santiago 54 urteko emakumea. Bereziki emakumeen eskubideen aldeko borrokan zentratua, Red de Mujeres Ixiles erakundearen sortzailea eta kidea zen, eta jasotzen ari zen mehatxuak salatuak zituen.



CASENAVE HIL DA

Junes Casenave idazle eta pastoralgile zuberotarra hil da, 94 urterekin. Santa Grazin sortua, obra oparoa utzi du idatzita, batez ere pastoralgintzan. Larraine eta Altxaiko apaiz izan ondoren, Donapaleun eman ditu azken urteak.



ATXILOKETAK

Segikoak izatea leporatuta Espainiako Auzitegi Nazionalak epaitutako zazpi lagun atxilotu zituen Ertzaintzak 2015ean (horietako hiru herri harresian). Gazteak kartzelaratzeko agindua baliogabea eta “legearen eta Eskubidearen kontrakoa” dela dio orain Konstituzio Auzitegiak.



ZAHAR ETXEAK

Ia bi urteko negoziaketen ostean emaitzarik lortu ez dutela-eta, grebak abiatu dituzte Gipuzkoako zahar etxeetako langileek. Soldata igoera, atsedendaldi ordaindua eta ratio hobeak eskatzen dituzte. 17 greba egun aurreikusi ditu ELAK.

Chevron-Ekuador: epaile pribatuek honela menderatu dute estatua



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Chevron petrolio konpainia iparramerikarra Ekuadorreko auzitegiek 2012an kondenatu zuten Amazonian eragindako kutsaduragatik 8.100 milioi euro ordaintzera. Orain gatazka komertzialetan arbitro lanak egiten dituen auzitegi pribatu batek atzera bota du, Holandan, ebazpen hura eta zigorrak gabe utzi urte luzez milaka herritarrek nozitutako kalteak. Merkatal ganbaren pribatuak arbitro auzitegieta epaileen gainetik: honela dago antolatuta multinazionalen inpunitatea.



Albiste Unión de Afectados por Texaco elkarteak zabaldu du munduan *#ChevronCulpable* *#NoMasImpunidad* agiriarekin: “2018ko irailaren 7an jakin dugu zer ebatzi duen Hagako Arbitratze Auzitegiako epaimahai batek, AEBek eta Ekuadorrek 1993an elkarren artean inbertsioak sustatu eta babes-teko egindako Itunaren baitan sortua eta Ekuadorrek 2017an gaitzetsia. Arbitratze Auzitegiaren ebazpena Chevron multinazionalaren eta Texaco bere filialaren aldekoa da eta argudiatzen du Ekuadorreko epaileek urratu egin dituztela inbertsio itun hark ezarritako betebeharrak”.

Oso albiste inportantea da, mundu osoan ezarriko du aurrekaria, baita Ipar-Mendebalde aberatsean ere, herritarren eta multinazionalen arteko gatazka askotan. Olivier Petitjean kazetariak *Multinationales.org* behatokia titulu honekin laburbildu du: “*Kutsadurak: Chevron petrolio konpainiaren kontrako isun historiko bat ezabatu du nazioarteko auzitegi pribatu batek*”.

Isun historikoa 8.100 milioi eurokoa zen, Chevron multinazionalari 2012an ezarria Ekuadorreko auzitegi batek –eta ondoren berretsia bertako Auzitegi Gorenak– Texacok Amazonian eragindako kalteen ordainetan. Inoiz ingurumen kalteengatik konpainia bati ezarritako isunik handiena zen.

Ekuadorreko Sucumbios probintziako 30.000 biztanlek eraman zuten auzitara Texaco Petroleum –2001ean AEBetako

bigarren petroliogile nagusia den Chevronek eresia– Amazoniako *urte beltza* ustiatzeko zulatutako 350etik gora putzuen hondakinak bazter guztietan isuri zituelako, inolako kontrolik gabe eta inguruko natura bezala jendeak larriki kutsatuz.

Texacok horrela kudeatu zuen petrolio ekoizpena 1964 eta 1990 artean, kontzesio moduan Ekuadorrek baimendutako milioi bat hektareako eremu zabalean. Petrolio bilaketarako zuloetatik hasita, erauzitako lohi kutsakorrek bezala zundaketetan erabilitako lubrikatzaile eta edonolako produktuak bertan botatzen zituzten teknikariak, bilaketan egindako zuloak berak ere estali gabe abandonatuz.

EjAtlas Ingurumen Justiziarako Atlasak jaso duenez, enpresak onartuta dauka 60.000 milioi litro hondakin toxiko dauzkala inguruetan botata gehi 650.000 upel petrolio gordin lekuan bertan barreiatuak. Ondorioak bertako biztanleek fite nozitu dituzte.

Eskualde horretan kantzer kopuru oso handiak daude, arnasketa, odol zirkulazio eta ugalketa arazoak, ahaztu gabe petrolio industriaren isuri kimiko kutsatutakoak jan edo edateagatik jatzotako pozointzeak. Toxikoen eraginez zenbait herri hutsik geratu dira: Tettes, Sansahuari... Eta Cofanes, Sionas, Siekopai eta beste herri askotatik ere ihes egin dute herritar askok. Baserritar ugari lur emankorrik gabe laga du kutsadurak, aziendak hil zaizkie eta abe-

reak bezala gizakiak ur kutsatua edanez bizitzera kondenatuta daude.

Internetez ikus daiteke bideo hunkigarri bat –*Los videos de Chevron*– petrolio ustiatazaileen harrokeria eta bertako nekazari txiroen babesik eza erakusten dituen. Chevroneko teknikariak grabatutako irudiak dira eta gero langileren batek anonimoki bertako ekintzaileei helaraziak. Konpainiak teknikoak bidali zituen kutsatu gabeko lur laginak biltzera auzitegian enpresaren frogatzat aurkezteko eta bideoan ikusten denez lur garbirik topatu ezinean ibili ziren hona eta hara. Irudietan teknikariak ageri dira barrez lurzorua toxikotasun itzela behin eta berriro frogatzen. Zenbait lekuko ere entzuten dira beren egoerak teknikarioi xumeki azaltzen, tartean hiru alaba txiki kutsaduragatik galdu dituen laborari bat.

Goliatek arbitroa ere berea du

Pablo Fajardo 14 urterekin iritsi zen eskualde honetara eta larruazalean daramatza petrolioaren industriak eragindako orbainak. Familia oso txiroan jaioa, mestizoa, eskolan aurrera egin eta unibertsitatean abokatu karrera egitea lortu zuen, egunez lana egin eta gauez ikasita. Bera aitortzen dute lidertzat Chevroni aurre egiten dioten herritarrek. 2004an anaia hil zioten, askoren ustez Pablari oinak gelditzeko.

“Antzeko arazoak dituzten beste askok ez bezala –esan zion Fajardok Petitjeani 2015ean– guk erabakita dau-



'Aljazeera'-k zabalduko argazkian, Sucumbios probintziako herritar batzuk Texaco-Chevronen petrolioz eta hura lurpetik erauzteko toxikoz kutsatutako aintzira baten ondoan. Amazonian multinazionalak kaltetutako herritarrok kexu dira Rafael Correaren ordezkari Lenin Moreno dagoenetik Ekuadorreko aginteak amore ematen ari direlako atzerriko kapitalaren aurrean, jendeak babesik gabe utziz.

kagu borroka sistema barrutik egitea, auzitegiak helegiteak erabiliz. Baina 21 urteren buruan, irudipena daukagu sistema ez dagoela egin Chevron bezalako multinazionalen biktimei justizia egiteko". Davidek igerrria zion Goliati zer egosten ari zen.

Ekuadorreko auzitegiek 2012an ebazitakoa hankaz gora bota du Hagako auzitegi komertzial batek. Komeni da hitz arrandiatsuen oihanean ez galtzea. Holandako Hagan egoitza eduki arren, PCA Arbitratze Auzitegi Egonkorak ez dauka zerikusirik Hagako Nazioarteko Auzitegiarekin eta ez beste edozein auzitegi ohikorekin ere. PCAk arbitro lanak egiten ditu estatuen eta inbertsiogileen arteko gatazketan. Hiru profesionalek osatutako epai mahaiak estatuak eta konpainiak osatzen dituzte, eta ados jartzen ez direnean, Munduko Bankuak izendatzen ditu,

globalizazio neoliberal diseinatu eta antolatu duen erakunde nagusietakoak.

Ekuador txikiaren eta Chevron erraldoiaren arteko arbitroen epaimahaian lehendakaria zen V. V. Veeder, Estokolmoko merkataritza ganbarako eta ICC Nazioarteko Negozio Legeetako Institutuko kidea. Bigarrena, Horacio Grigera CICA Nazioarteko Merkataritza Arbitratze Zentroko zuzendaria da. Eta hirugarrena, Vaughan Lowe ingelesa, gisa honetako hainbat nazioarteko arbitratze erakundeetako kidea.

Hiru arbitrook erabaki dute, hala dio ebazpenak, Ekuadorreko auzitegiak ustelkeriak hartuta dauzkala, Chevron errugabea dela egozten zaizkion salaketatik eta Ekuadorreko estatuak pagatu behar dituela auziaren kostez gain Chevronentzako aurrerantzean izendatuko duten kalte-ordaina.

Gutxienezkoa da multinazionalak 2012an nahiago zuela AEBetan epaitua izatea baino Ekuadorren epaitzea. Abokatu bufete on batek hori baino errore handiagoak konpon ditzake. Inportanteena da auzitegi pribatu batek arrazoiak kendu diela hainbeste lanekin auzitegi publikoen nolabaiteko garaipena lortu zuten herritarrei, eta *Multinationales.org*-ek dioen beste hau: "Erabaki honek erreparorik gabe berresten du auzitegi nazionalen gainetik nagusitasuna daukatela enpresen zuzenbide komertzialak, korporazioen epaimahai pribatuek agintzen dutela epaile nazionalen gainetik".

Ikasi munduan agintzen duen Lege Kode berria: *Investor-state dispute settlement*. Inbertsiogileen eta estatuen arteko gatazken arbitrajea. Euskal Herrian ere egokituko zaigu probatzea. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



«Ez da emakumeentzako kooperatiba, baina gure egiteko modua bereziki emakumeei zaie erakargarri»

Laura Martinena

Ekintzaile konpultsiboa landa eremuan

19 urterekin alde egin zuen etxetik. Gurasoak ez omen ziren sobera aztoratu, zazpi anai-arreben artean gazteena izaki. Orduz geroztik, ahateen modura igeri, oinez eta hegan omen dabil. Bateko gaztandegia, besteko Ernaizu kooperatiba, *escape room* jokoak... 850 biztanle dituen Basaburua ibar lasaian bizi da, etengabe zein egitasmo berri abiatuko pentsatzen ari den iruindarra.

Testua: Reyes Iltxeta

Argazkiak: Dani Blanco

Zertan egiten duzu lan?

Egia esan zaila egiten zait horri erantzutea. Bolada batean errazago nuen sukaldari gisa ari nintzelako edo AEKn irakasle, baina hori denbora gutxian izan zen. Gehienez proiektu berriak sortzen eta kudeatzen ibili naiz. Zalan-tzarik gabe, gehien gustatzen zaidana egitasmo berriak abiaraztea da, horregatik esaten dut nahiko ekintzaile konpultsiboa naizela.

Iruñekoa izanik, zer dela-eta etorri zinen Basaburura?

Oso garbi neukan herri txiki batera bizitzera joan nahi nuela. 19 urterekin etxetik alde egin nuen eta 21ekin, barnetegi batean ezagututako beste bi neskarekin, Ultzamako Irazotz herrira bizitzera

joan nintzen. Zazpi anai-arrebetan gazteena naiz eta gurasoek ikara handirik ez zuten hartu. Gero, urte pare batez Anuen izan nintzen. Garai hartan, Basaburuan zeramika ikastaro bat egiten ari nintzela, jakin nuen hango batek etxea saldu behar zuela. Horrela, bikotekidea eta biok Udabeko errotara joan ginen.

Berehala ikusi nuen hemen bizi eta lan egin nezakeela. Gaztandegi bat atara zuten alokairuan eta hartu genuen. Kalekume hutsak ginen, baina zaletasun handiz gazta egiten ikasi genuen eta baita negozioa eramateko beharrezkoak diren gaiak ere: kontabilitatea, salmenta teknikak... Bertako ekoizpena bultzatu nahi genuen. Nafarroan esne ekologikoa ekoizten zuen abeltzain bakanetako bat genuen ondoan, eta nola

Laura Martinena Espinal

Iruñea, 1975

Hiria utzita, gaztetan herri txiki batera bizitzera joan zen, Ultzamara lehenbizi, Basaburura gero. Sukaldaria izan da, euskara irakaslea, gaztagilea... Basaburua ibarreko Ernaizu kooperatibako sortzaileetako bat da. Duela bi urte Espainiako Estatuko Nekazaritza Ministerioak Berrikuntzaren Bikaintasuna saria eman zien. Orain turismo eskaintza berri bati heldu diote: *escape room* jolasak Orokieta herrian eta bailaran.



Danoneri saltzen zion eta tankean beste guztiarekin nahasten zuen, pentsatu genuen hori ez zitekeela horrela izan eta hasi ginen esnekiak egiten esne ekologiko horrekin. Basakaitz izenarekin merkaturatu genituen esnekiak. Gaztandegia utzi nuen, baina beste batzuek aurrera jarraitzen dute.

Nola sortu zen Ernaizu kooperatiba?

Gaztandegian ginela atera zen Aizarozko ostatua hartzeko aukera. Herri berria da eta udalak erabaki zuen han kultur etxea egitea eta azpian taberna. Aukera polita iruditu zitzaidan herria haranean integratzeko eta harana herrira hurbiltzeko. Egia esan, gaztandegitik bereizteko gogoia ere banuen, han familia eta lana, dena batera izatea, trinkoegia zelako.

Laster aski garbi ikusi nuen bailaran zerbitzu gehiago eta lanpostuak behar zirela. Gogoeta hori hasi nintzen ingurukoekin partekatzen eta horrela sortu zen kooperatiba egiteko ideia. Handik gutxira, Udalararen Garapen Batzordeak Jauntsaratseko Apeztegiberrin taberna eta denda zabaltzeko proiektua aurkeztu zuen. Zerbitzugune bat haranaren erdian. Guretzat perfektua zen. Aurkeztu ginen enkantera 2011n eta geroztik han gaude. Horrela gorpuztu zen Ernaizu kooperatiba. Hasieran hiru emakume ginen eta gure printzipioekin bat datorren jende gehiago joan da sartzen. Zorte handia izan dut lan munduan, jende jatorraz inguratuta egotea egokitu zaidalako beti.

Nolakoa da Ernaizu?

Ekimen sozialeko kooperatiba da. Ez ditugu etekinak banatzen, beno ez dugu etekinik sortzen, baina izatekotan kooperatiban inbertituko lirateke. Haranean jarduera ekonomikoa aktibatzea da helburua, zerbitzuak eta lanpostuak sortuz. Gure ardatz filosofikoa da lana eta bizitzaren zaintza bateragarriak egitea. Lanaldi malguak ditugu eta lehentasuna ematen diogu. Honekin batera euskara eta kulturaren zaintza, eta herrien arteko kohesioa bultzatu nahi dugu. Zortzi kide gara eta beste horrenbeste langile. Hauek gehienbat, inguruko gazteak dira, lanordu kopuru txiki bat eskatzen dutenak. Guretzako hori ere ustekabea izan da. Hasieran kontziliazioa ikusten genuen zaintzari begira soilik, baina ohartu gara guregana jotzen duten gazteek haien ikasketetikiko kon-



tziliazioa bilatzen dutela. Horri erantzun egokia ematea oso garrantzitsua da landa eremuan. Ikastera joaten den jendeak kanpoan aurkitzen badu aurrera jarraitzeko behar duen asteburuetako lantxoa, kanpoan geldituko da, eta aldiz, herrian aurkitzen badu, errazago errotuko da bertan. Gazteek izugarri eskertzen dute.

Denak emakumeak zarete?

Bai, bat izan ezik.

Eta hori?

Ez da emakumeentzako kooperatiba, gertatzen dena da gure planteamendua eta egiteko modua erakargarria egiten zaiela emakumeei bereziki.

Alde emozionala askoz ere indartsuagoa da emakumeek egindako gauzetan eta hori transmititzen da gure negozioan. Emozioen munduan murgiltzea

ez omen da erakargarria gizon askorentzat eta are gutxiago lan arloan...

Egoera fisikoa, hilekoa, adibidez, kontuan hartzen duzue adibidez?

Oso garrantzitsua iruditzen zait eta horretara jo beharko genuke. Zerbitzuak ematen ari zarenean bezeroen beharrak asetzea da garrantzitsua eta horretarako gure artean moldatzeko malgutasuna badugu, hainbat hobe.

Hilero egutegi bat egiten dugu eta kontuan hartzen ditugu egon litezkeen eskakizun berezi guztiak. Horren arabera finkatzen ditugu ordutegiak eta lan banaketa, baina ez dago arazorik ezusteko aldaketak egiteko. Horregatik saiatzen gara dauzkagun lan guztietatik gutxieneko bat jakiten guztiok.

Egutegia egiterakoan oso kontuan hartzen ditugu haurren eskolaz kanpoko jarduerak, amaren medikuak, eta



gure kontuak ere bai, noski, lana eta zaintzaz gain gure bizitza dugulako. Ez da inoiz gertatu lankide bati ezetz esan behar izatea inork ezin duelako ordezkatu.

Apeztegiberrin zer aurki daiteke?

Ostatua eta denda. Otorduak ere ematen ditugu eta esan daiteke ia zentro zibikoa dela. Basaburuak 800 biztanle ditu astean eta asteburuan gehiago. Lehen zer-bait erosteko Irurtzunera, Lizasora edo Lekunberrira jo behar zuen jendeak. Gutxienez 30 kilometro joan eta etorrian. Gurean janari-denda normal batean dauden gauzak aurki daitezke eta saiitzen gara beti bertako produktuak eta produktu ekologikoak lehenesten.

Eta bezeroak nortzuk dira?

Gizon kuadrillak etortzen dira hamai- ketakoa egitera, eskola haurrak ekar-

tzen dituzten gurasoak, dendetara datozenak eta, errepidean izanda, kanpoko jende asko ere sartzen da. Turismo bulegoaren funtzioa ere egiten dugu. Txirrindulariak ere etortzen zaizkigu, haientzat gelditzeko oso toki eroso delako, gainera bizikleta kanpoan utzita, begi-bistan edukitzen ahal dute. Esaten dute oso ongi tratatzen ditugula, haien artean zabaltzen da kontua eta kuadrillak eta kuadrillak izaten ditugu. Udan, bestalde, haur eta gaztetxoak etortzen dira maiz. Zaldainak daude errekan, igerileku natural batean, eta han jostetan ibiltzen diren haurrak Apeztegiberrira litxarrerria eta izozki bila hurbiltzen dira. Oso giro bizia beti.

Jauntsarats ibarraren zentro neuralgikoa da han farmazia, eskola, osasun etxea eta udaletxea daudelako. Horregatik uste izan zuten garrantzitsua zela halako topagune bat izatea eta nik uste dut lortu dugula.

Etorkizunari begira zer duzue buruan?

Sukaldea eta transformazio gela antolatu nahi genituzke kontserbak egiteko. Inguruko eskoletako jantokien zerbitzua antolatu nahi genuke bertako produktuak erabiliz. Bertako produkzioa bultzatuko luke. Diru-laguntzak badira, baina kapitalaren zati handiena guk jarri beharko genuke. Hori da gure proiektu izarra.

2016ko urrian, landa eremuko emakumeentzako sari garrantzitsua eman zizueten Madrilén.

Nekazaritza Ministerioak Berrikuntza-ren bikaintasuna saria eman zigun. Gure lanaren aitortpena hasi ginen sentitzen orduan. Urte berean, haraneko Basanderea emakumeen elkartearen aipamena jaso genuen. Nik betidanik sinetsi dut proiektu honetan, baina lankide batzuei oraindik kosta egiten zaie pixka bat. "Sari bat Madrilén? Baina guk txistorra pintxoak egiten ditugu!" esaten dute.

Oso bizipen ederra izan zen. Esan ziguten hegazkina pertsona bati ordainduko ziotela, baina guk erantzun genien talde lana zela eta jende gehiagok joan nahi zuenez nahiago genuela hegazkin txartela autobus baten truke aldatu. Eta hala izan zen. Hara abiatu ginen gu, gure familiak, bezero batzuk... "Euskaraz bizi nahi dut" kamisetekin, Basaburuko taldeen beste kamisetekin... oso polita izan zen.

Handik gutxira bururatu zitzaizuen *escape room* bat zabaltzea?

Bai, Orokietan. Oso herri polita da. Ostatua aspaldi itxia zen eta duela pare bat urte hor gauza asko egiteko aukera zegoela ikusi genuen. *Escape room* jokoak ezagutu nituen garai hartan eta baita zaletu ere. Pelikulak ikustea gustuko dut, baina halako joko batean aritzea istorio horiek bizitzea bezalakoa da. Horrela sortu zen "Izena duenak badu izana", sorginkeria, izaki mitologikoak eta misterioa biltzen dituen haran honen identitateari lotutako jolasa.

Zer nolako erantzuna izan du?

Oso ona. Kuadrillak, familiak eta bikote asko etortzen dira. Hori dela eta bururatu zitzaigun beste bat egitea: "Ama-lurraren erronka". Hau kanpoan egiten da, ez areto baten barruan. Ginkana eta *escape room*-aren arteko nahaske-ta da. *Escape natura* esaten diogu guk. Jauntsaratsetik abiatu eta lau herritan barna ibiltzen da jendea misterioak argitzeko, denbora mugarik gabe. Udaberrian abiarazi eta berehala konturatu ginen haurrek haientzako zer-bait ere merezi dutela. Horrela sortu zen "Basa-jeinuen mezua", Orokieta herrian barna helduek eta haurrek elkarrekin egiteko proba-jolasa.

Oso balorazio ona egiten dugu. Oso egokiak dira landa eremuetarako, besteak beste, naturari eta bertako kulturari lotutako jokoak proposatzen dituzulako eta hori da, hain zuen ere, jendeak eskatzen duena, ez gai aseptiko bat hirian bezala.

Turismo aktiboaren baitan kokatzen da?

Bai. Natura eta herriak ez ezik, ekintzak ere eskaini behar dira. Jende askok, hirietakoak batik bat, ordaindu beharreko zer-bait bilatzen du etxetik ateratakoan.

Dena den, argi eduki behar dugu turismoa integratu behar dela eta ezin bestekoa izanik ere, ez dela dena. Ezin da etorkizuneko aterabide bakarra izan. Gure baliabideak, gure giza kapitala, sustatu behar ditugu. Basaburuan, adibidez, profesional eta zerbitzuen gida atera du Udalak eta oso praktikoa da. Hirietan bizi garenok edo bizi izan garenok ez gara ohartzen zein garrantzitsua den denontzat lurraldearen kudeaketa egokia egitea. Baliabide gehiago, diru gehiago sartu behar da landa eremuan jendea gelditzeko.

Escape room jolasak oso modan daude.

Izugarri, eta enpresetan ere asko erabiltzen dira talde dinamiketarako eta jendearen portaerak aztertzeko. Hori da, hain zuzen ere, orain Iruñeko Kili-kili jolas parkean zabaldu nahi dudana lerro berria.

Ernaizutik at ari zara garatzen?

Bai. Ernaizu proiektua gorpuztu da eta erabat utzi gabe ere, beste gauza batzuk egiteko aukera izan dezakedala iruditzen zait une honetan. Lanorduak laburtu ditut eta orain arte nire anaia batek zeraman Arrotxapeako jolas parke horren kudeaketa hartu berri dut. Gazteentzako zer-bait egin daiteke hemen dauden egiturak aprobetxatuta. Jokoa diseinatuta dago eta laster jarriko dugu martxan. Helduen taldeentzat ere zer-bait ari gara prestatzen eta enpresei eskaintzeko asmoa dugu.

Ez duzu inoiz atsedeenik hartzen?

Proiektu bat etortzen zaizunean bada maitemintze moduko bat. Gauzak bere une egokirako uzten ikasi dut. Igeri, hegari eta oinez, dena egiten dut, baina ahateen modura.

Nola da kalekume batentzat herri txiki batean bizitzea?

Egunerokotasunean abantailak gehiago badira ere, trabak ere aurkitzen dituzu. Dena deserosoagoa da. Erosketak egiterakoan, adibidez, asko nabari da. Azken orduko zer-bait behar izanez gero ez duzu denda txinatar bat etxe azpian. Autoa denerako behar duzu. Hirian duzun anonimatua hori ere ez dago.

Bestalde, harremanei dagokienez, herrietan jendeak udala edo kontzejua ez du ulertzen erakunde arrotz bezala, nahi dudana exijitu ahal diodana baizik. Auzolanaren kontzeptua ere barneratuta dute herrikoek, guk baino gehiago, nahiz eta galbidean izan. Ulertzen dute hor dagoena ni bezalako delako eta hor ari dela ordu pila sartzen eta burua hausten denon onerako. Orokorrean errespetu gehiagorekin eskatu eta proposatzen dira gauzak. Agian nire bizipena da, baina hori da ikusten dudana.

Begirunea dago herrikideen artean. Batzuen artean istiluak izanda ere, festak iristean badakite elkarren ondoan egoten, besteak errespetatuz. "Zu ere

hemengoa zara, ni bezala, eta eskubide bera duzu hemen egoteko nahiz eta nire etsaia izan." Jarrera horrek oso alde onak ditu toleranteago bihurtzen zarelako. Hori izan da, behintzat, nire prozesua. Hori kosta egin zait, baina lortu dut.

Lasaiago bizi da jendea hemen, hori bai, ezta?

Izaeraren arabera da. Estresa egin behararen kudeaketa txarraren ondorioa da. Berez lan gehiago dago herrian hirian baino, baina hemen haien bizitzaren parte hartzen dute lana eta ez soilik dirua ateratzeko modu bezala. Ez dago hainbeste zarata eta presarik. Jendea suabeago mugitzen da eta hori ere transmititzen da. Hala ere, estreserako joera duena berdin ibiltzen da herrian edo hirian.

Haurtentzat, zalantzarik gabe, herria da onena. Askeagoak eta independenteagoak hazten dira hemen. Haien garpenerako oso ona da lurra eta hostoak ukitzea, zikintzea... Hala ere, adin batera iritsita jende gehiago ezagutzeko beharra eta gogoia dute. ■



**OPARI BEREZIETARAKO
PERTSONALIZATUAK
PREZIO AUKERA DESBERDINAK**

ESKAERAK
azoka.argia.eus
☎ 943 371 545

Auto elektrikoaren itxaropena

Kapitalismoaren historia, jardue-
ra ekonomikoaren gorabeherekin
lotuta azaltzen zaigu. Kapitalismo
aurreko sistema ekonomikoetan ere
gorabehera horiek ematen ziren, edo
hori ikasi genuen Historia Sakratuan
esplikatzeko zizkigutenean Egiptoko
goseteak: behi mehe eta gizenen ipuina.
Alta, aldaketa horiek urtealdiko uzten
arabera izaten ziren; aldiz, kapitalismoa
sistema nagusi bilakatu ostean, jardue-
raren aldaketak mozkin tasen arabera-
koak izango dira, Karl Marxek maisuki
azaldu zigun bezala.

Ekonomia uhin horiek, epe luzean,
40-50 urteren buruan, ekoizkin trak-
tore boteretsuen arabera ematen dira.
Duela 250 urte, kapitalismoak jauzi
kualitatibo esanguratsua eman zuen,
lurrin makina asmatu ostean. Geroa-
go, lurrin makinez eragindako garraio
bideak zabaltzen ziren. Ondoren, elektri-
fikazioa eta motor termikoen erabi-
lera orokortzea etorri ziren, oraindik
jarraitzen duena. Azkenik, industriaren
digitalizazioa, informatizazioa, telefo-
nia eta robotizazioa heldu dira. Sistema
berri horiek ezartzen diren bitartean,
ekonomiak gorakada bizkorak izango
ditu eta sistema horiek orokortzen
diren heinean, hazkunde ekonomikoa
motelduz joango da.

Gaur egun, badirudi, motore ter-
mikoen uhina amaitzeaz dagoela bi-
zergati nagusi hauengatik: lehena, jasan
ezinezko kutsadura sortzen duelako
CO₂ren isurketen bidez; eta bigarre-
na, petrolioaren oinarritutako erregaia
agortzeaz dagoelako. Ondorioz, zerk
ordezka dezake horrelako industria
eraginkorra?

Egoera horretan kokatu behar dugu
ibilgailu elektrikoaren asmatzea,
nahiz 1899rako lehen probak burutu
ziren eta 100 km abiadura orduko er-
dietsi zuen. Alabaina, gure garraio siste-
ma motore termikotik motore elektri-



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EKONOMIALARIA

Autogintza inguruko
jarduera herrialde askotara
heldu da eta Euskal Herrian
ere tamaina esanguratsua
dauka, bai kopuruz, baita
kalitatez ere. Haatik, ez
da harritzekoa industria
horretan motelaldia
sumatzen hasi bezain
pronto, irteerak aurkitu
nahian ibiltzea; horretan
dihardute gure arteko
zenbait enpresak: CAF eta
Irizar Koop., adibidez

kora pasatzen badugu, hiri eta inguruko
kutsadura erabat murriztuko zaigu eta,
gaixotasun ugari desagertzeaz gain, hi-
riak bizigarriago bilakatuko zaizkigu.

Autogintza inguruko jarduera he-
rrialde askotara heldu da eta Euskal
Herrian ere tamaina esanguratsua
dauka, bai kopuruz, baita kalitatez ere.

Haatik, ez da harritzekoa industria
horretan motelaldia sumatzen hasi
bezain pronto, irteerak aurkitu nahian
ibiltzea; horretan dihardute gure ar-
teko zenbait enpresak: CAF eta Irizar
Koop., adibidez.

Nola ez, auto elektrikoaren etorkizun
oparoz jabetuta, Txina sartu da bu-
ru-belarri industria horretan. Gainera,
hogeita hamaika eskutik dauka. Duela
gutxira arte mendebaldeko zenbait
herrialdek eraman du autogintzako li-
dertza; geroago, ekialdeko Asiako beste
batzuk gehitu dira eta orain, sektorean
agindu nahi du Maoren herrialdeak
eta horretarako aukera eskuragarriak
ditu. Izan ere, Txinak dauka auto elek-
trikoen bateriak ekoizteko lehengai
garrantzitsuenak: lur bereziak (mun-
duko ekoizpenaren %79), kobaltua
(Kongok munduko erreserben %60 du
eta Txinak erosteko ia monopolioa du),
litioa (erreserba esanguratsuak ditu),
zerioa...

Zalantzarik gabe, ibilgailu elektrikoek
ez dituzte gure hiriak kutsatuko CO₂-
rekin, baina lehengaiak erdiesterakoan
ingurumenak kalte esanguratsuak pai-
ratuko ditu: ur gezaren erabilera bider-
katuko da eta kontsumo pribaturako
urritu, ibaiak kutsatuko dira, inguruko
soro eta belardiak pozoitu, eta minbizi
kasuak orokortu.

Azken finean, gure hirietako haizea
garbiagoa izango da eta gai kutsako-
rrak urruti geratuko zaizkigu. Ez ahaztu
jadanik zabor arriskutsuak Afrikara
bidaltzen ditugula. Beraz, antzinako
kolonialismoa eraberritu dugu: zabor
kutsakorrak afrikarrei esleituko diz-
kiegu, gerrak eta beronek eragindako
arma negozioak hara desbideratu, ge-
rrate eta gosete horietatik ihesi datozen
etorkinak Mediterraneokoan hilobiratzen
uzten ditugun bitartean. Baina hori bai,
lehengai preziatuak gure ongizatea ber-
matzeko ekartzen jarraituko dugu. ■

Iraultza txikien akanpada

ndarberritua ateratzen zara horrela-ko esperientzietatik. Guztiz. Zubietan (Gipuzkoa) bildutako 400dik gora lagunek ez dugu erraz ahaztuko aste-buru eguzkitsu horren trebakuntza. Lurralde Askearen lagunek prestatu-tako agendak maisuki bildu ditu herri mugimenduen kolore anitzak, tamaina guztiak eta nortasun politiko osagarriak. Dudarik gabe, gure buruek eta gure bihotzek lurrikaratxo zirraragarri bat sentitu dute joan den aste-bukae-ran eta emaitzak ikuski dira. Hurrengo hiru kontzeptuen arteko harremana azalduz, bertan gertatutakoaren nire aburua eman nahi dizuet.

Pertsonak. Abiapuntua eta helmuga garena baiezta da Zubietan. Erdigu-nean beti egon behar den elementua. Gatazken dinamika konplexuen gainetik eta helburu askatzaile, berdintzaile eta iraultzaileen azpitik, norbanakoak gara bizitza ona, "bizitza merezi duen bizitza" horren protagonistak. Gu gabe ez dago komunitate ezta kolektibitate-rik. Norbanakoak gara aldaketa guztien motorrak eta hartzaileak. Humanismo berria dugu iparra.

Gatazkak. Asko dira Euskal Herrian martxan diren herri taldeen kanpai-nak eta gatazka sozio-politikoak. Lin Yutang idazle kristau-txinarrak esan



Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

Gatazkak ez dira jomuga, tresnak baizik, gure indarrak neurtzeko eta gure mugak ezagutzeko

omen zuen: "Gatazkak beti existitzen dira. Ez saiatu horiek saihesten baizik eta ulertzen". Gatazkak ez dira jomuga, tresnak baizik, gure indarrak neurtzeko eta gure mugak ezagutzeko. Feminis-moak ongi erakutsi digu beldurrak eta zaurgarritasunak ezinbestekoak direla, ezin ditugula ukatu eta presente edukiz gero gure borrokak sendatuko direla. Gatazka prozesu guztietatik ikas daite-ke, irabaziz zein galduz.

Utopia. Azken urteotako aldaketa berriek nahastu egiten gaituzte. Gure

arerioen hegemonia nabarmena da eta ez dakigu kapitalismotik harago zer etorriko ote den. Gure praktika inter-sekzional eta multikoloreak, teoria "hibrido" baten beharra du, kontrae-san sozio-ekonomiko materialek eta naturaren mugek, zapalketa sexual eta arrazistek zein erabakitze eskubide politikoak, *corpus* teoriko berri baten beharra dute, trantsiziorako bidean ardatzak edo itsasargiak bidean izate-ko. Nik horri ekofeminismo sozialista deitzen diot. Idatzi gabe, baina idazte-kotan dagoen ideologia utopiko berria. Bai, utopiko diot, ez mitologikoa edo metafisikoa. Pruden Gartzia zioenez: "Utopiak begiratu, aztertu, baloratu, zatikatu, elkarriketatu, negoziatu, kon-partitu egiten dira, azken batean lortu egin baitaitezke".

Igande arratsaldean helikopteroak eta Ertzaintza Zubietako gotorleku toxi-koaren eraikuntza defendatzera etorri zirenean, aurreko bi egun eta erditan hitz egindakoaren zailtasun praktikoak gogora ekarri zizkigun. Boterearen irudi plastiko bortitza eta zurrunka ikaraga-rria bidali zizkigun gure utopiak eza-batzeko intentzioaz. Periko Solabarria borrokalarri nekaezinaren leloa etorri zitzaidan burura: "Ez badigute amesten uzten, ez diegu lo egiten lagako". ■

40 urte

Gabriel Aresti

euskaltegia*

euskaltegia baino gehiago

www.gabrielaresti.eus

MATRIKULA ZABALIK!

Praktikoa

Lehenengo egunetik mintzamina lantzen



Azterketak gainditzen lagunduko dizugu

Emaitzak zure errittora





Giro atseginean

Beti laguntzeko prest

Argi luzea



Mikel Irizar
EUSKALGILEA
@mirizarintxaus

Hemezortzi urte inguru nituen eta Madrilen bizi nintzen. Halako batean erabaki nuen euskaldun izango nintzela, euskal herritar eta euskal hiztun, modu aktiboan eta kontzientean. Erabaki horretan faktore askok izan zuten eragina, baina pentsamoldearen zutabea liburukote batek jarri zuen: Eusko Ikaskuntzak 1918an Oñatin egindako kongresuaren emaitzen bildumak, hain zuzen. Herri egitasmo oso bat aurkitu nuen bertan, eta egitasmoaren partaide izatea deliberatu nuen.

Izan ere, duela 100 urte Oñatin gertatu zena historikoa da: garaiko jakinduria zuen elitek euskal herriaren etorkizuna sakon aztertu zuten eta garatu beharreko estrategien oinarria jarri zuten gizartearen eskutan, kongresu amaierako aurrekuak eta soka-dantzak sinbolizatzen duten moduan. Esparru askotan aritu ziren, baina nik bereziki gogoratzen ditut euskarari zegozkionak: ikastolak, unibertsitatea eta Euskaltzaindia.

Eusko Ikaskuntza bera kongresuaren ondorioz eratu zen, hango lanei jarraipena emateko. Lehen urteetan irabazitako prestigioaren adierazle argia da Espainiako Errepublikara garaian erakundeari eman zitzaion enkargua: Autonomia Estatutua idaztea, alderdien esku jartzeko. Lizarrako Estatutaren lehen bertsioa landu izana da niretzat Eusko Ikaskuntzaren gailurra, herri egitasmoari egindako ekarpen nagusia.

Ehun urte geroago Eusko Ikaskuntza ahalegin betean ari da, frankismoaren jazarpenak eta ondorengo katramilek utzitako ajeak gainditzeko eta berriro herri egitasmoaren zerbitzura jartzeko. Oraingo ahalegin honetan mila laguntik gora ari gara, jakinduria askoz hedatuagoa dagoenez, eta niretzat ohore handia da euskarren etorkizunaz diharduen talde eragileko kide izatea.

Zinez uste dut argi luzea pizteko premia larria dugula. Frankismotik irteeran ekintzan murgildu ginen bete-betean eta ez dugu asti handirik hartu egindakoa ikertzeko edo datorrena usaintzeko. Beharrezkoa da, ordea, begirada altxatzea eta argi luzea piztea; argi motzarekin bide guztiek dirudite zuzenak, soilik luzearekin antzematen dira bidearen bihurtuak.

Aurtengo udazkenean burutuko den Eusko Ikaskuntzaren kongresu sortak ekinbide horretarako lehen oinarria jarri nahi luke; alegia, hurrengo hamarkadetan euskal komunitateak izan beharreko bilakaeraren ildo nagusiak proposatzea eta gizartearen esku jartzea. Jakinda, hain zuzen, gizarte eragileei eta ordezkariak dagokiela erabakiak adostea eta ekimenak gauzatzea, munduan eta gurean bide egiten ari den gobernantza kolaboratiboaren logikan.

Lau hamarkada –ia bost– joan dira Madrilgo erabakitik, eta bizi-bizirik dirau. ■

Zeinen zaila den oreka



Itziar Bardaji
Goikoetxea
NUP-KO IRAKASLEA

Pili beti presaka dabil, erloju txiki bat du, tik tak tik tak, belarrien atzera etengabe itzultzen den euliaren modura ari da eta eskuez uxatzen ditu. Beti dago lanpetuta, zerbait erabilgarria egiten. Pili ez du denbora galtzen. Jakin badaki bestelakoak galtzen dituela, ezertarako balio ez omen duten plazerak, musika entzun edo artearekin liluratu edo aspertzearen magia dastatu. Baina ezin du ekidin, beti betetzen zaio eguna.

Milik, ahal duen guztietan, berandu altxatu eta patxadaz gosaltzen du. Kostatzen zaio martxan jartzea, eta askotan lagunei deitzen die azken momentuan mendira ez doala eta ondo pasa dezatela esateko. Nagia ematen dio, edo buruko min

apur bat du. Ez dauka pasio handiko hobbyrik. Egurgintza ikastaroa, euskaltegia, gimnasioa... hasi eta gutxira utzi ohi ditu. Etxean lagunekin eskulantxoak egitea gustatzen zaio. Batzuetan iruditzen zaio hilabeteak eman dituela ezer gutxi esanguratsurik egin gabe. Baina ezin du ekidin, beti pasatzen zaio eguna.

Udazkenarekin iristen zaigu ikasturte berria, eta harekin batera, berriz ere, asmo onak. Pili bizitza lasaiago hartu nahi du, gutxiago estresatu. Milik zin egin dio bere buruari aktiboagoa izango dela. Agian, abendurako betiko moduan ibiliko dira berriz, Pili arnasestuka eta Mili sofak janda. Edo, agian, aurtan ez. ■

Maite dugu itxarotea

2018ko uda bero honetan, aireportuetako kaosaren lekukoak: etxetik irten (Londresen) eta, 26 ordu geroago, Bartzelonako *lost and found*-eko ilaran lan-ordu pare bat gehiago galtzen ari den emakumea. Amsterdametik Stuttgartera heltzeko, nahi gabe, bi gau hotelean pasa dituzten aita-semeak, hauek ere eskuko maletarik gabe. Bilbon beharrean, Gasteizen goizeko hiruetan lur hartu ondoren autobusean sartu dituztenak. Lau hegalditarako bi mostradore daude zabalik, eta (auskalo noiz hasi duten bidaia) bost urteko ume batek siesta egiteko aprobeztatu du: 45 minutu amaren besoetan. Bost orduko atzerapenarekin aireportura heldu eta konexioa egiten duen hegazkina hartzen saiatzeko zein atera joan behar duen ez dakiena (berari aparte, beste inori ez baitio ardura).

Langileek badituzte ardurak; ez ordea erantzukizunik. Bidaiaari gehienek ez dute hitz egingo ezer konpondu dezakeen inorekin. Telefonoak ez dira erantzuten, eta emailak bidaltzeko orduan *error* jartzen du pantailan. Emailak heltzen badira, hitz adeitsuz hornituak egongo dira, eta bidaiaariaren haserreak babes-material irazgaitz horren kontra egiten du talka. Langileak euri zaparrada baten azpian gabardina *high-tech* batzuk jantzita dituen flota bat bezala irudika daitezke. Zenbat denbora iraun dezake pertsona batek etengabeko eraso horren azpian? Bai, errukia sentitzen dut. Batez ere leihatiletan aurpegia eman behar dutenekin. Bidaiaari batek edo bestek manerak galtzen ditu horien aurrean. Hori ere ulertzen dut.

“Ez dut sekula berriz Vuelingekin bidaiaituko!”. (Edo, kasuan-kasuan, Eurowingsekin). Semearen esaldiaren oihartzuna entzuten dut, lagunari esaten: “Ez dut sekula gehiago zurekin jolastuko!”. Zein da alternatiba?



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

Europako zeruan markak hautsi dituzte hegaldi kopuruek. Pronostikoen arabera, aireko trafikoa areagotu egingo da. Atzerapenak ere bai. Azken urteetako gorakada prezioen beherakadaren eskutik joan da. Hegaz egin ahal izatera ohitu gara. Erasmus-biografien edota finantza krisiaren ondorio diren familiak, negozioengatik bidaiaitzen duten langileak, oporretan doazenak. Askok gara. Badakigu aireko garraioaren *demokratizazioak* ondorio beltzak dituela. Denok dakigu eta (ia) denok ez ikusiarena egiten dugu.

“Zer aldatuko litzateke nik hegazkina hartuko ez banu?”. Disonantzia kognitiboak gutxitzeko eskura dugun teknologia guztia jartzen dugu martxan. Kontzientzia txarrez egiten ditugun beste mila kontuekin bezala. Oso uste sendoak behar dira jokoan ez erortzeko.

Bada, uda honetako kaosaren harira, hara non irakurri diodan mugikortasun-ikertzaile bati: jendea horretara mugitzeko modua *behartzea* dela. Gutxieneko eskakizuna da prezioek gora egin behar dutela, nahitaez. Kostu ekologikoa ordaindu egin behar dela, eta ez, egiten den bezala, saritu. Aditu horrek Alemaniako hirien artean hegaz egitea debekatzea proposatzen zuen emergentziazko neurrigisa. Ez dela asko, baina nonbaitetik hasi behar dela. Trena benetako aukera bihurtuz, hurrengo pauso batean, Europako hiri nagusiak ere lotu arte. “Hori da nik behar dudana: debekuak eta alternatibak”, pentsatu dut. Erradikala? Zergatik iruditzen zaigu konponbide erradikalak ez direla aukera bat? Atzerapenak kontuan hartuta, Berlin-Bilbo Vuelingen denboran egingo nuke, maleta eskuan helduko nintzateke, emisiorik produzitu gabe, eta kontzientzia lasai. Bakarrik ezin dut hori guztia lortu. “Eta erabakitzeko askatasuna galdu!” Uste dut baietz. Arau gehiago (edo beste batzuk) nahi ditut presio (moral) guztia nire gain ez izateko. Seguruenez, Vuelingeko langileek ere bai. ■



BIZKAIA

irratia

Bizkaitik
bizkaira
bizkaieraz

2018

Fm: 102,6

www.bizkaiairratia.eus

94 446 68 00

JOKOA NORMALIZATZEA APUSTU ARRISKUTSUA

Gure herrietako denda eta ostatu ugari itxi dituzte ateak, eta zabaltzen ari dira joko-areto berriak, kirol-apustuen gerizpean nagusiki. Geroz eta gazteago murgiltzen gara jokoan, neurri handi batean Internetek –telefono mugikorrak– eskaintzen duen erosotasun eta bat-batekotasunak hauspotuta. Abantaila dirudiena, ordea, kalterako da sarri, adikzioa borrokatzea helburu duten elkarteetatik diotenez. Kalterako den bezala jokoak duen irudi geroz eta normalizatuagoa, Gasteizko Judimendiko Gazte Asanbladak eta Azpeitiko Elkar-ekin taldeak ohartarazi digutenez.



Jon Torner Zabala

@jtorner

Gasteiz Hoy agerkariak maiatzean emandako datuen arabera, Arabako hiriburuan 27 joko-areto zeuden, eta beste bost irekitzear. Urtea amaitzerako, beraz, 32. Joko-makinak eta taberna-jatetxea uztartzen dituzten lokalak dira gehienak, garbi eta argitsuak, ez daukate pelikuletan ikus genitzakeen areto ilun horien tankerarik. Zenbaitetan, zoruak markatzen du bi munduen arteko muga: egurra-edo tabernan, eta moketa elegantea makina txanponjaleak dau-duen gunean.

Hain justu, espazio berean batzen diren bi mundu horien sinbiosia da ludopatia borrokatzea helburu duten erakundeen kezka iturri nagusietakoa, joko-aretoen irudia normalizatzea dakarrelako, joko normalizatzea alegia, geroz eta bezero gazteagoen artean bereziki, kirol-apustuek erakarriak izan direnak hein handi batean. Normalizazio-prozesu horren baitan, ezinbestean

behar dira aipatu, adibidez, kirol talde eta ekitaldiak diruz babesten dituzten apustu etxeak, eta irrati-telebista emisioetan zein egunkari berezituen orrialdeetan txertatzen dituzten iragarkiak.

Gasteizko Judimendi auzoan iaz ireki zuten joko-aretoa, eta orduan hasi zuen Gazte Asanbladak gaiaren inguruko lanketa. Ekainean plazaratu dute emaitza, *Auzoan joko kanpo, joko-aretoaren inguruko hainbat argipen* txostena. Bertan, besteak beste salatu dute argi koloretsuen itzalean ezkutatzen den “kontsumo eredu indibidualista”, zeinak perfil jakin bateko bezeroa harrapatzen duen batez ere: diru-iturri baxuak dituzten gizonezkoak, “gazte eta etorkinen kopuru handia” nabarmenduz.

Taberna normalak?

“Jokoaren normalizazioak kezkatzen gaitu gehien, eta horrek ludopatiarekin duen loturak”, azaldu digute Judi-

mendiko Gazte Asanbladako kide Karla Agirre Aranburuk eta Aitor Brazal Cabrak: “Taberna normalak dirudite. Leku batean makinak dauzkate, baina gainerakoan... Bezero asko gosaltzera edo poteatzera joaten da bertara. Joko-aretoan sartzak ez du aditzera ematen jokatzera zoazenik, ez dauka konnotazio negatiborik”.

Gazteek salatu dute makinaren arduradunak –hiriko areto gehiagoren jabe den kateak– ordaintzen duela lokal osoaren alokairua, baina tabernaren kudeaketa beste enpresa batek darabala: “Alokairurik ordaintzen ez duenez, aukera dauka pintxo eta edarien prezioa jaisteko, eta auzoko gainerako tabernekin ez daukate horrekin lehiatarik. Denbora gutxian bi taberna itxi dira hemen, neurri handi batean gosaltzera joaten ziren bezero asko galdu dituztelako, tabernariak eurek kontatu digutenez”. Asanbladak herritarren artean



Goiko argazkian, Judimendiko Gazte Asanbladako kideak, Olagibel kaleko joko aretoaren atarian. Behean, ezker-eskuin: joko aretoen aurkako manifestazioa Gamonalen (Burgos) eta apustu-etxe baten aurkako pintadak Madrilgo Moratalaz auzoan.



egindako inkestaren arabera, jende askok uste du joko aretoak “auzo-bizitza hiltzen duela”.

Ondorio nagusien artean bada beste bat: kontrol soziala handitu izana. Joko aretoek kamerak dituzte barrualdean zein atarian, “bezeroak eta langileak kontrolatzeko”. Gainera, lokal inguruan liskarrak izan direla diote gazteek, eta droga trafikatzailerak “lasaitasun osoz” aritu direla “lanean”, nahiz eta “aitzakia hori baliatuz” poliziaren presentziak gora egin duen auzoan.

Judimendiko Gazte Asanbladako kideek areto barruan egin duten behaketa-lanak eta bertan lanean aritutako zenbait pertsonak kontatutakoek azaleratu dutenez, bi bezero mota bereizi daitezke: tabernara zer edo zer edatera sartzen direnak –zenbait kasutan makinetara hurbilduz–, eta zuzenean jokatzerara doazenak. Horien artean gizonetzkoak dira gehienak, diru iturri

baxuak dituztenak eta banaka-banaka agertzen direnak. Bezero-jokalarien generoaz galdetuta, gazteek esan digute kulturalki tabernak-eta ez direla izan emakumeen espazioa, eta horri “dirua gastatzeko perspektiba” gehituta, hobe uler daitekeela gizonen presentzia handiagoa. “Guk ez dugu sosik izan gure eskuetan, zertarako eta jokoan aritzeko”, esan digu Agirrek. “Bada beste osagai bat”, jarraitu du Brazalek, propio kirol apustuen gaiari helduta: “Dirua jokatzearena oso lotua dago lehiakortasunarekin, ea nork gehiago jakin, gizonetako rolarari atxikia egon dena gehiago”. Zentzu horretan, Madrilgo Carlos III Unibertsitateko soziologia irakasle José Antonio Gómezek *El País* egunkarian zioen apustua “pokerra bezalakoa” dela: “Jendea ez doa soilik dirua irabaztera, baizik eta erakustera zenbat dakien futbolaz, saskibaloiaz edo beste edozein kirolari buruz”.

Gora eta gora etengabe

Judimendi, Zaramaga, aurki Txagorritxun... Gasteizko joko areto asko langile auzoetan daude, periferian. “Euren bezero helburua zein den erakusten du horrek”, diote gazte asanbladatik. “Ez da kasualitatea, etorkizun hobearen amets faltsuari jarraituz, gutxien duenak apur hori jokoan xahutzeko bideratua baitago hark sortzen duen menpekotasuna”.

Ildo berean mintzatu zaigu Eneko Ibarguren, Azpeitiko (Gipuzkoa) Elkar-ekin taldeko kidea, galdetu diogunean herrian zabalduko duten apustu-aretoaren eta haren kontra uztailean deitutako elkarretaratzearen inguruan: “Sektoreko enpresak sekulako dirutzak egiten ari dira auzo langileetan, jendeak bere behar ekonomikoak asetzeko apustura jotzen duelako askotan”.

Kirol apustuekin lotutako datu bat eman digu, gaia kokatze aldera: Hamar urte igaro dira Reta enpresak (Azpeitiko



aretoaren jabeak) Bilbon lehen lokala zabaldu zuenetik. Geroztik Espainiako Estatuan beste 50 bat denda ireki eta ehundaka tabernatan apustuak egiteko 2.500 terminal gehiago ditu ezarriak. “Krisi ekonomikoaz geroztik nabarmen hazi da apustuen merkatua”, esan digu lbargurenak.

Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, 2017an 340 milioi euro jokatu ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egoitza duten enpresen (Reta, Kirol eta Garaipen/Codere) apustu-terminal fisiko eta webguneetan, 2016an baino %10 eta 2012an baino %113 gehiago. Nafarroan ere parekoa da igoera: 74 milioi euro jokatu ziren iaz, 2016an baino %10,92 eta 2012an baino %150 gehiago. Sektoreko enpresek, bestalde, 58 milioi euroko irabaziak izan zituzten, 2016an baino %13 eta 2012an baino %80 gehiago. Jokaturakoaren %15 inguru da hori; zentzu horretan, irabazi-marjina txikiagoa da Estatuko Loteria eta Apustuena baino, %40koa izanik kasu honetan.

Kopuru horiei gehitu behar zaizkie gure mugez gaindi –paradisu fiskaletatik maiz– operatzen duten enpresei dagozkienak. Egiaz, on-line apustuez hitz egitean ezinezkoa da diru kopuru zehatzak ematea; milaka milioi eurori buruz ari gara.

Honekin guztiarekin lotuta, azpimarratu beharra dago gaur egun ez dela krisi aurretik baino diru askoz ere gehiago jokatzeko, baizik eta joko mota

aldatu egin dela: jaitsi dira kasinoak, bingoa, kiniela... eta igo dira, nabarmen gainera, hizpide ditugun kirol apustuak.

Langile auzoak jo-puntuak

“Ludopatiaren aurkako elkarteek maiz eskatu dute antzeko lokalen irekiera erregulatzeko, baina...”, jarraitu du lbargurenak. Hiri handiagoetan, Madril en edota Londresen esaterako, auzo pobreen eta joko aretoen arteko loturak aspaldi piztu zuen eztabaida. Ez dira adibide bakarrak. Txikiagora jota, ezinbestean behar da Gamonal aipatu, Burgeseko auzoa (Espainiako Estatua), hango borroka eredu den heinean Azpeitia edota Gasteizko eragileentzat. Urteak daramatzate langile auzoetan jokoak izan duen hazkundeaz eta eragiten dituen kalteez eztabaida sustatzeko lanean, eta aldarrikapen-zerrenda mardula osatu dute. Besteak beste, herri-talde batek Udalari eskatu dio lizentziarik ez emateko jokoaren sektoreko enpresei, kirol ekitaldi eta espazioetatik haien publizitatea kentzeko, eta ez daitezela hedabideak erabili apustuak eta jokoak sustatzeko. Gamonaleko jendea Judimendin izango da aurki, jokoaren inguruko hitzaldi-ziklo batean parte hartzeko. Azpeitian ere mahai-inguruak antolatzeak dira urrian, eta joko areto berriaren aurkako sinadura bilketa abiatuko dute. Solaskideak jakitun dira aretoak itxia ez dela erraza, baina horretan saiaturiko direla diote, eztabaida gizarte-ratzearekin bat, “presio zuzena” eginez,

Judimendiko gazteek azaldu digutenez, joko-aretoaren barruan egin dituzten protesta-ekintzak gogora ekarrita.

Kirol apustuak: klubentzat arnas, askorentzat zama

Gasteiz eta Azpeitia izan ditugu hizpide, baina jokoarena fenomeno askoz ere zabalagoa da. Gure herrietan ikusten badugu lokal bat obratan dagoela, litekeena da areto berria irekitzea bertan; eta horri gehitu behar zaio ia guztiok daramagula makina txanpon-jale potentzial bat poltsikoan, telefono mugikorretan kamuflatuta, horrek dakartzan ondorioekin, jokatzeko errazagoa eta kontrolatzeko zailagoa baita, ludopatiari aurre hartzeko lanean ari diren elkar-teen ohartarazi dutenez.

Halaber, geroz eta kirol talde gehiagok paratzen dute apustu etxeen logoa euren estadioetako paneletan eta jokalarien kamisetetan, zaleek, adingabeek tartean, erosiko dituzten horietan. Sukarrak futbol klubak harrapatu ditu bereziki, baina ez soilik horiek (“Bilbao Basketek, klubarentzat hauspo eta konfiantza-iturri izan nahi duen 10 urterako akordioa sinatu du RetaBet-ekin”, irakurri berri dugu *El Correo*n, adibide bat aipatzearren). Eta gero eta normalagoa da kirol emanaldietan hedabideek tartekatzea apustu egitera gonbidatzen gaituzten iragarkiak, EITB ren telebista eta irrati kateetan adibidez.

Futboleko zentratuko gara ondorengo lerroetan, Britainia Handiko datue-



tan bereziki, apustu etheen inguruko eztabaida oso presente dagoelako bertan, maila politikora salto egin izanak erakusten duen moduan. Zer pentsatua eman beharko luke hango egoerak.

Ingalaterrako bi maila nagusietan jokatzen duten taldeetatik, %60k apustu etxe edota kasino birtualen logoa darma kamisetan, babesle nagusi bezala, eta gehiago dira bigarren mailako babesle gisa dauzkatenak. Espainiako Estatuan, lehen mailako taldeen artean, Real da (oraingoz) babesleen artean halakorik ez duen bakarra, aurreko denboraldietan Kirolbet zuen arren bidelagun.

Errusian jokatutako Munduko Futbol Kopak iraun bitartean, jokoaren sektoreko enpresen iragarkiek alkoholaren edarienak baino ia bi bider espazio handiagoa hartu zuten telebistan, eta janari lasterrenak baino lau bider gehiago. Hala mintzatu zen Tom Watson alderdi laboristako lehendakari-ordea BBC telebista katean: “Munduko Kopa distiratsu honen alderik beltzenetakoa izan da jokoari buruzko iragarkien bonbardaketa, bai telebistaz, bai sare sozialetan. Milaka adingabek ikusi dituzte”.

Herrialde horretako Jokoaren Batzordeak 2017an egindako inkestaren arabera, 11 eta 16 urte arteko gazteen %12k egiten du apusturen bat asteen, 370.000 lagunek gutxi gora-behera; horietako 25.000 “problem gamblers” dira, jokoarekin arazoak dituzten pertsonak.

Parentesi bat irekiko dugu orain. ASAJER Errehabilitazioan diren Araba-

Hego Euskal Herriko joko-aretoetan lau enpresaren apustu makinak daude. EAEkoak dira horietako bi, Kirolbet eta Reta. Madrilgoa da Codere (EAEn Garaipen izenarekin erregistratua), eta Kataluniakoa Sportium, Nafarroan sustraiturik dagoena. Baskonia eta Bilbao Basket (ezkerrean) saskibalo taldeen babesle ofizialak dira, hurrenez hurren, Kirolbet eta Retabet; pilota txapelketak babesten ditu Coderek; estropadak edota ziklismoa Kirolbetek... Horiez gain, Britainia Handiko enpresak dira protagonista: esaterako, Bet365ek babesten ditu Athletic eta Eibar, eta BetWay-k Alaves (eskuinean).

ko Jokalarien Elkartek 146 lagun artatu zituen 2017an, horietako bi adingabeak, lege, 18 urtez azpikoek jokatzea debekaturik duten arren. Aurrez aipatu dugun Jose Antonio Gómez soziologoaren hitzetan “jokoa aisialdi aukera bat gehiago da, liburu bat erostea edota zinemara edo antzerkira joatea bezala. Bere iritziz “kontua da espainiar gizartea oso moralista dela”. Kokatzeko aldera: hark egin du Carlos III Unibertsitateak eta Codere jokoaren sektoreko enpresak elkarlanean argitaratu duten *Jokoaren Urtekaria* txostena. Kontrara, KirolBet enpresako Manu Egañak *Gara* egunkariak abuztuan plazaratutako elkarrizketan zioen ezin garela “banalizazioan” jausi: “Ez da aisialdi modu bat gehiago. Txikiteoa bezalakoa da; osasungarria izan daiteke, baina egunero eginez gero, goiz eta arratsalde, medikuak esango dizu arazo bat daukazula”.

Britainia Handiko Gamble Aware elkarteak 2017an egindako inkestaren arabera, 15-24 urteko gazteen %35k onartu zuen apustu egitera telebistako spot batek bultzatu zuela. Izatez, hedabideetan iragarkiak ikustearren eta adikzio-arazoen arteko lotura ez dago frogaturik, baina bide horretan lan handiagoa egin behar dela uste dute adituek. Gambling Watch behatokiak ohartarazi duenez, “argi dago jokoa geroz eta gehiago ari dela normalizatzen, gazteen artean batez ere. Geroz eta gehiago, apustuak hartzen dira kirol ekitaldiak jarraitzeko edota norberaren talde kuttuna babes-teko osagaitzat”.

Joko “arduratsua”, bai baina...

Joey Barton futbolari profesional ohiak, 2006 eta 2016 artean lege kontrako 1.260 futbol apustu egiteagatik zigortu zutenak (jokalariek debekaturik dute apustu egitea), esan zuen futbol agintariek onartu behar dutela “interes gatazka” dagoela. “Talka handia dago euren arauen eta joko moderno inguratzen duen kulturaren artean”. Kezka horrek bultzatuta, Ingalaterrako Federazioak (FA) 2017an eten egin zuen Ladbrokes Coral-ekin zuen publizitate-hitzarmena. Taldeen esku dago orain babesletzak lotzea. Joko etxe batekin lotuz gero, jubenil mailako taldeek ezin dute haren logoa erakutsi.

Sokaren beste muturrean, EFL Ligako Kopa txapelketak bost urterako akordioa sinatu du Sky Bet enpresarekin. Bi



UZTARRIA

aldeek azaldu dute “joko arduratsuen alde” egingo dutela lan, futbolariak kamisetan daramaten leloak erakusten duenez: “Dibertsioa eteten denean, eten ezazu”. Ildo berean mintzo da KirolBet enpresako Manu Egaña: “Joko-eredu arduratsua eraikitzea dagokigu; enpresok eta [ludopatiaren inguruko] elkarteak batera aritu behar gara, baita unibertsitatea, gobernuak eta oro har Administrazio osoa ere”. Horretarako oinarriarik ba ote dagoen galdetuta, eztabaida Euskal Herriko parametroetara ekarri behar dela dio: “Madrilen liberalizazioa erabatekoa da eta joko aretoak zabalitzen ari dira 100 metroko tartearrekin; hemen askoz ere arautuago dago dena, beste arazo batzuk ditugu, ez ditugu zertan Madrilgoak inportatu”.

Joko arduratsua. Bogan da termino hori. Erabiltzen dute sektoreko enpresek, administrazioek, ludopatiaren inguruko elkarteek... Ezin esan, ordea, hura ulertzeko moduan bat datozenik. “Elkarteek monumentua merezi dute, baina erantzukizun osoa euren gain uzten badugu, baliabideak eman behar zaizkie”, dio Egañak. “Aragoin, bildutako tasaren %1 prebentzio-lanetara doa. Ez da asko, baina gutxienez bada zerbait. Bestelakoan, apurka-apurka ludopatia txertatu beharko da Osakidetzan eta gizarte zerbitzuetan. Joko arduratsua ikusi behar dugu [Euskadi osoarentzat] erronka komun moduan”.

Elkar-ekin kolektiboaren hitzetan, apustu etxeak “joko arduratsua” bultza-

Elkar-ekin taldeak deituta Azpeitian irekitzekoak diren joko aretoaren aurka egindako elkarretaratzea. Datozen egunetan ekimen berriak jarriko dituzte abian, sinadura-bilketa tartean.

» **Britainia Handiko Jokoaren Batzordeak 2017an emandako datuen arabera, 11-16 urteko 370.000 gaztek apusturen bat egiten du asteen. Horietako 25.000 “problem gamblers” dira, jokoarekin arazoak dituzten pertsonak**

tzen dabiltzala dioten bitartean, “menpekotasuna sortzen duten teknikak” ari dira erabiltzen, ongietorri-bonoak edota kirol ekitaldiak zuzenean ikusteko sarreraren zozketak, esaterako.

Italian, debekuaren bidea

Kirol apustuen gorakadak kezkatuta, 2019ko urtarriletik aurrera Italiako Gobernuak debekatu egingo ditu apustu etheen iragarkiak, baita enpresa horiek kirol taldeak babestea ere, publizitate-hitzarmena aipatu datatik harago si-

naturik daukaten klubak kasuan izan ezik. “Jokoaren industria handiegia bilakatu da, herritarren osasun eta duintasunaren lepotik”, adierazi du Luigi di Maio diputatuaren ganberako presidenteordeak prentsurrekoan. Apustuak “familiak hondoratzen” ari direla esan du, eta horrek eragina duela osasun publikoaren aurrekontuetan. Azken datuen arabera, 2017an 400.000 italiarrek izan zituzten “arazoak” apustuekin, duela hamar urte baino lau bider gehiagok.

Dekretuarekin kritikoen agertu direnetakoak futbol taldeak dira. A Ligak adierazi du italiar klubak desabantaila-egoeran jarriko dituela, apustu etxeekin babesletza akordioak sinatzen jarraituko duten Europako gainerakoekin alderatuta. Bestalde, jokoaren sektoreko elkarte eta enpresek debekuaren bideak dakarren ondorioez –patronalak “arisku” terminoa erabili du– ohartarazi dute, jendeak gune “klandestinoetara” jotzera bultza dezakeelako.

Euskal Herrian zer gertatuko den, auskalo. Gurea “apustua zainetan daraman” herria dela entzuten dugu maiz, “beti” jokatu izan dela. Horrek ez du esan nahi, ordea, sekula arazorik egon ez denik. “Garai batean baserriak-eta galtzen ziren”, esan digute Judimendiko gazteek. “Desberdintasun bat da, agian, pilotalekuan egiten zenuela lehen apustu, bain gaur egun joko-aretoak dituzu, Internet... hurbilago dugu guztia, guztia da errazagoa, normalagoa. Hori nabarmendu nahi dugu”. ■



**BULKADA
BERRIEN
GARAIA
DA!**

Gazte memoriari heltzea Jarraitik Ernai eta Aitzinara **40 urte**

Ameriketako ipar-mendebaldeko jatorrizko herrien arteko zeremonia bat kontatu zuen Eduardo Gleanok. Erretreta hartzera doan eltzegileak, bere maisu lana ematen dio ofizioa ikasten ari den gazteari. Eta eltzegile gazteak ez du ontzi perfektu hori begiratzeko eta miresteko gordetzen; aitzitik, lurraren kontra lehertzen du, mila puskatxotan hautsi, puskatxoak jaso eta bat egiten ditu bere buztinarekin.

Xalba Ramirez
@xalbaram

ARGAZKIA: ERNAI ETA AITZINARA

Jarrai gazte antolakundea sortu zenetik 40 urte betetzera doazela aitzakia hartuta, Ernaik Bulkada berrien garaia da dinamika abiatu du joan den irailaren 16ean Leitzaan batuz Jarrai, Gazteriak, Haika, Segi eta Ernaiko 1.000 kide eta kide ohi.

Galeanoren metafora ibili dute “Gazte memoriaren eltzea” deituko den liburu-artefaktoa sortzeko ere. Gazteriar dagokion gisa, liburua tresna bihurtzeko sortu da, eta azaroan aurkeztearekin batera, herri herri arituko dira lantzen. Gainera, auzo eta herri bakoitzerako izen bereko liburu zuri bat banatu dute “herri bakoitzak bere memoria idatzi dezan”, Aitor Orobio bozeramailearen hitzetan.

Honela diote liburuan: “Memoria ezin da dekretu bidez ezarri. Memoria egin egiten da, eta egite edo eraikitze hori ardua partekatua izango da. Ispilu baten aurrean jartzen ditu norbanakoa berdin kolektiboa”.

Belaunaldi ezberdinen lekukotasunak jasotzeko garaian garaiko dokumentu, barne zein kanpo aldizkarietaz, afixez, zein pegatinez gain, hainbat talde elkarrietzeta antolatu dituzte, garaiko kideekin. “Liburuaren protagonista izateko, ez da soilik idatzi dutenak, izan ere norbanakoen bizipenek osatzen dute gazte antolakundearen historia”.

Irati Sienra aritu da liburua osatzeko lantaldean, eta beste arrazoi bat gehitu du: “Illegalizazio garaiko dokumentu eta eztabaida gehienak berreskuratu ezinak dira. Historiaren zati hori berreskuratze beharrezkoa zen protagonistekin batzea”.

Memoria ariketa hau egitea beharrezkoa izan da, etengabe moztu delako belaunaldi berriekiko transmisioa. Orobiok argi du: “Egindakoaz ikasi nahi dugu eta egin dena eguneratu”. Horregatik elkarrietzeta guztietan egungo gaiak eta eztabaidak ukitzen saiatu dira; bereziki militantzia ereduak eta feminismoa eta emakumeen parte hartzea antolakunde mistoetan.

Sienrak egindako elkarriketetatik azpimarratzen du denentzat izan dela gazte antolakundea bizitza eta nortasuna eraikitzerako orduan ezinbesteko zutabe bat: “Inoiz ez naiz berriz ere horrelako zerbaiten parte sentitu”, “inoiz ez dut berriro horrenbeste gogorekin eztabaidatu”...

Gazte antolakundeak Euskal Herriko historia liburutik agertzen ez den zati

garrantzitsu bat izan dira. 4.000 kide izatera heldu da Haika sortzeko Amaiur prozesuan kasu, eta egun 1.000 kide inguru dituzte Ernai eta Aitzinak, sindikatuen ostean, antolakunde politiko handienetako bat Euskal Herrian.

Eltzekadaz eltzekada egin da heldu gazte antolakundea. Urteetako esperientzia eta jakintza ez dute museo batean gorde nahi, aurrera begira jarriko dute. Orobiok Leitzaan esandako hitzetan: “Etorkizunaren nostalgikoak gara”.

Irati Sienra Zengotitabengoa (Bilbo, 1990) gazte antolakunde ezberdinetan urte luzez militatzen aritu ostean, Ipar-Hegoa Fundazioan ari da egun lanean. Azaroan kaleratuko duten “Gazte memoriaren eltzea” liburua egiteko lantaldean aritu da azken hilabeteotan. Azken zirriborroa eskuetan, gazte antolakundeen ibilbideari begiratu diogu.

» “Gazte antolakundeak militante konprometitua hezi ditu bizitza osorako”

Iraun nahi badu, ezin subjektu politikok bere balioak eta jokabideak transmititu behar dizkie belaunaldi berriei. Zein da gazte antolakundeak 40 urteko ibilbidean utzi dituen balio eta kultura garrantzitsuenak?

Balio nagusia beste eredu baten aldeko borrokaren aldeko konpromisoa izan da, Ezker Abertzalean. Gazte antolakundea izan da Ezker Abertzalearen proiektu politikoarekiko lotura bermatu duena belaunaldiz belaunaldi. Gazte antolakundeak militante konprometitua hezi ditu, baina ez soilik gazte garairako, baizik eta eragile ezberdinetan bizitza osoan militatuko duten pertsonak.

Beste balio batzuei dagokionez, gazte militantziak ere ekarri du langileak izatea, gauza ezberdinetan aritzeko gaitasuna garatzea, beldurra gainditzea –honek emakumeen kasuan pisu berezia zuen–, kurrikulum ezkutatu bat eskaini die kide gehienei. Inposatutako balioen aurrean, kolektiboan lan egitea, elkartasuna, besteen beharrianekiko kezka,

dinamizatzen ikastea, betaurrekoak aldatzeko aukerak...

Gazte problematikak gazte antolakundean izan duen pisuaz ere hitz egin daiteke. Jarrai hasieran gatazka politikoan parte hartzeko modua baino ez zen. Baina gai hau zentralitatea hartzen joan zen V eta VI. biltzarretan jorratutako bizi baldintzen eztabaidarekin. Haikan gazte mugimenduaren zerbitzura jartzeko plan oso bat garatu zen, baina moztu egin zen errepresioarengatik, Segin izan zen bezala.

Eltzekadatan banatu duzue liburua. Lehen eltzekada Jarrairi buruzkoa da. Jarrairen soldaduskaren jarrera eta intsumisioaren borroka izan dira historiara gehien pasa diren pasarteak.

“*A la mili con los milis*” izan zen lelo bat, bai, baina soldaduskara ez zuten ezta Jarraikoek ere joan nahi. Hasierako eztabaidak hartu ditugu eta argi eta garbi ateratzen da leku guztietan Jarrai soldaduskaren kontra zegoela.

Momentu batean diskurtsoa aldatu egin zen, KAS Alternatibarekin talka egiten zuelako. Ordea ez da ulertu behar gazte eta helduen arteko talka bezala, Jarrai mugimendu osoago baten parte zela eta horren hobe beharrez egiten ari zirela uste zuten. Erdibideko bidea hartu zuten orduan “soldaduska honi ez” adieraziz, eta nahiko indar jarri zen. Gazteriarren gehiengo oso kontra zegoenez, ez zen oso ondo ulertzen eta ez zen bat egiten.

Intsumisioaren aldeko borroka agertu zenean, soldaduskaren kontrako diskurtso berri bat hasi zen: ez zen pazifismoan oinarritzen, eskubideetan baizik. 1990eko hamarkadaren hasieran Jarraik eztabaida luzeen ostean bere egiten ditu aldarrikapen hauek eta bere diskurtso propioa sortzen du: Borroka armatua herri baten autodeterminazio eskubiderako tresna zilegi zela baina horrek ez zuela esan nahi armada erregular eta profesional baten beharra zegoenik, hori inposaketarako tresna baitzen.

MOC eta Kakitzatek traba piloa jarri zituztela kontatzen du liburuan Maitane Intxaurregag, Jarraik protagonismoa kenduko zuelakoan. Baina egia da salto kualitatibo bat eman zuela borroka, borroka hori bera eraldatuz. Hartu zuen indarraren erakusle, adibidez, European barrena intsumiso martxa egin zuten.



ARGAZKIA: DANI BLANCO



Militantzia eredu saiatu zarete erdigunean jartzen. Jarraitik adibidez, antolakundearen irudi gogorra gailendu da, koadro ikuspegia. Zer du egia eta zer mitotik? Nola joan da aldatzen?

Eguno eztabaida garrantzitsua delako saiatu gara liburuan asko hitz egiten militantzia eredu gainean: nola ulertu den 24 orduko militantzia, adibidez. Jarraiko parte hartzaile askok iraganeko berrikuspenekin eze-roso sentitzen dira, iruditzen zaielako elementu batzuk soilik kontuan hartuta oso zorrozki epaitua izan dela. Egia dela Jarraian konpromisoaren ulerkerako oso zurrunka zela –estrategia ere halakoa zelako–. Baina baita ere antolakundeak inposatutako zerbait bezala ikusi izan da, eta militante guztiek esaten zuten eurak zirela euren buruei ardura hori jartzen ziotenak. Oso azaletik kritikatu izan da, eta beraiek harrotasunetik aldarrikatzen dute.

V. Kongresuan gertatu zen gazte antolakundearen kultura politikoaren aldaketa nagusia: “Gazte mugimendua dagoen lekuan dinamizatu, eta ez dagoenean sortu”. Ikuspegi historikotik nabarmena da aldaketa eta Ezker Abertzalean jokatu zuten aitzindaritzak papera.

Garaiko denek aipatzen dute harrotasunez. Izan ere, Jarrairen IV. Kongresua drama bat izan zen, erabat gainbeheran baitzegoen, eta izan ziren Ezker Abertzalean HB Gazteak sortu behar zela zio-

Ezkerreko argazkian, Jarraik desindustrializazio garaian egindako kanpaina.

Erdian, Txomin Unzaga, intsumiso izateagatik preso sartu zuten gazte baten aldeko kanpaina.

Eskuinean, Jarrairen 20. urteurrenean egindako manifestazio bat 1999an.

» “A la mili con los milis
lelo bat izan zen, baina
Jarraikoek ere ez zuten
soldaduskara joan nahi”

» “Ernai da gazte
antolakunde guztien
sintesia, saiatu da
behintzat batzen
eztabaida eta
praktika guztiak”

tenak ere –oraindik amorrutaz gogoratzen dute–.

Gazte problematika erdigunean jarri, beste Jarrai baten sorrera planteatzen zen, beste jardun bat eta beste borroka ildoak. Kongresuaren egunean bertan jakin zuten lortu zutela anitzagoa zen antolakunde bat, koadrila bakoitzaren ezberdintasunak ikusita.



ETBk etengabe kilimak bilatzen zizkien Jarraiko kideei, eta hauek eskaintzen zitzairen mikrofono hori aprobeztatzen zuten. Ezker Abertzalea goibel zegoen garai batean, Jarraik ikusgarritasun handia lortu zuen.

Nazio Eraikuntza estrategia erdigunean jarri zuen, bi urte beranduago Ezker Abertzale osoak egin bezala Txinaurri prozesuan. Hala ere, ez da kontsideratzen Jarrai izan zenik horren aitzindaria...

Haikaren sorrerak Euskal Herriko lehen erakunde politiko zibil nazionala ekarri zuen. Baina talka ugari izan ziren bidean. Nolako izan zen prozesua?

Haikaren sorrera hausnarketa oso logiko bezala ikusi izan da, baina errealtatea polita baina gatazkatsua izan zen –maitasun istorio gisa gogoratzen dute–. Gazteriak eta Jarrai 1995 urtetik aurrera hainbat ekimen batera antolatzen hasi ziren. Baina oso kultura militante ezberdinetik zetozen: Jarrai zen “presak eta ekimen handi ikusgarriak”. Eta Iparraldean giharra erakusteko gaitasun faltagatik edo, prozesuari askoz ere garrantzi handiagoa ematen zioten.

Gazte Abialdiaren aurretik, sarekada zurrumurru bat zabaltzen zen eta Jarrairen zuzendaritzak muga pasa zuen hila-bete batzuez bertan bizitzeko. Hor hasi ziren benetan ulertzen errealtateak ezberdinak zirela, eta balioan jartzen Iparraldeko lan eredu. Hegoaldeko



ALBERTO ELOSEGI / ARGIAKO ARTXIBOA

onena eta Iparraldeko onena batuko zituen antolakunde berri bat sortzeko prozesua izan zen Haikarena. Militantzia berri bat zuen helburu: ez bakarrik naziotasuna.

Hegoaldean bereziki zuzendaritzan nabaritu zen prozesua, baina Ipar Euskal Herrian militantzia gutxiago izatean, egiturak txikiagoak izatean, modu irekiago batean bizi zen eta denek jaso zuten. Haika sortu zenean izandako sarekadak ordean, ikasitakoa moztu zuen, eta zaila izan zen garapena ematea. Prozesua ederra izan zela gogoratzen dute baina oso pertsonala.

Segiren bizitza kartzelarena, torturarena eta ilegalizazioarena da. Erakunde zibil klandestino batean bizitzearen hainbat anekdota biltzen dituzue. Lehen aldiz irakurri ahal izan ditut nik horrelakoak. Ilegalizazioan Segik izan du bere bilakaera, teorizazioan eta praktikan. Nola bizi izan dute hau garaioko kideek?

Hasieran ez genion errepresioari erdiguinea eman nahi, baina azkenean erakundearen bizitza izan da, pertsonen egunerokoa zeharkatu du eta ondorio nabarmenak izan ditu.

Ahotsa.info-k edo Topatuk izugarritzko lana egin dute torturak edo kartzela esperientziak biltzen. Horiek jasotzeaz gain klandestinitatea landu nahi izan dugu: nola joan garen segurtasunaren ideiatik hainbat portaera gure egunerokotasunean normalizatzen eta geroz

eta ilunagoak bihurtzen. Adibidez, inori ezer ez kontatzea –“Mobida bat egin behar dut”–, inoiz ez azaldu zer edo norekin egon zaren, teknologiak bizitzatik kanpo uzteaz, militantziaz ezer ez kontatzea -kontatu zitekeena eta ez-, eta beraz, oso opakoa bihurtu zen dena.

Antolatu genuen saioan parte hartu zuten kideek ez zuten inoiz gaiaz hitz egin eta badago behar hori. Belaunaldi oso baten errealtatea baita. Errepresioa jasan ez duten kideena ere bai. Torturatu ez duten kidearengan torturak duen eraginaz ez da hitz eginen, baina badauka. Ondorio hauek noizbait landu eta erreparatu beharko dira. Ez bada hitz eginen ez da sendatzen.

Esan bezala nahi genuen errepresioaz baino gehiago hitz egin, oso antolakunde garrantzitsua izan delako Segi. Egokiarik zailenean ere ez du amore eman eta beti saiatu da gazte mugimendua berpizten. Azkeneko momentura arte “beste tresna bat behar dugu honek ez baitu balio” esaten duen arte, inoiz ere ez dio sortzeari uzten.

Sarrionandia aipatzen duzue, ikuspegi kritikoa mantentzeko distantzia hartzeko beharraz. Ba al dago nahikoa bosgarren eltzekada honetaz hitz egiteko? Zeintzuk izan daitezke, gure historia ez ofizialera igaroko diren pasarteak?

Ernaiz hitz egiteko goizegi da. Zintzotasunez hitz egiteko eta eman dituen emaitzak baloratzeko. Segiren azken

urteetan estrategia aldaketan duen paperaz bezala.

Garai hauetan, teknologia berrien ondorioz edo, gauza asko ari dira gertatzen, batzuk mamizkoak eta batzuk ez, denbora eta distantzia behar da ikusteko.

Edonola ere niretzat Ernai da, gazte antolakunde guztien sintesi bat. Saiatu da behintzat batzen, eztabaida eta praktika mota guztiak. Baina esan bezala ezin da baloratu. Adibidez Askeguneek pisu handia hartu dute, gu bereziki markatu gaituztelako, baina goizegi da esateko benetako bide bat izan duten Euskal Herriko, eta are, antolakundearen bizitzan.

Ernai izan da feminismoari garrantzi handiena eman dion gazte antolakunde. Nola bizi izan da aldaketa hau, aurreko eltzekadekin alderatuta?

Argi dago Ernain feminismoarekin jauzia erraldoia eman dela, aurrekoekin alderatuta. Jarraiko lehen emakumeek kontatzen dute ez zirela feministak kontsideratzen, emakumeen arloan lan egin arren. Egizanean disolbatzean Jarraiko emakumeak inplikatzeko hasiko dira eta hor aldaketa nabarmenak gertatuko dira.

Ezker Abertzaleak martxan jarritako prozesu feministan Segik konpromiso handia hartzen du, tamalez, errepresioak berriz ere moztu du. Segiri dago-kionean aitortzen ez den lan bat dago, berak sortzen baititu baldintzak. ■

COMÈTE KORAPILOAK MEMORIAREN SAREAN

Mugaldeko jendea, halabeharrez, mugalari lanetan aritzen da maiz. Jendearekin batera igarotzen dira, batetik bestera, ondasunak eta kontakizunak. Bidasoaren alde bietan, oraindik ere, historia hurbilaren hainbat istorio dabilta harat-honat: ahozkoak, idatzizkoak, ikus-entzunezkoak. Esaterako, Comète sarearena. Irailaren 14tik 16ra, Bigarren Mundu Gerrako ihes-lerroan barrena ibili dira hemeretzigarrenez, eta emakume eta gizon haiek duela 75 urte inguru egindakoa oroitu dute.



Ion Olano Carlos
@sartuda


Testu hau sare izateko asmoz sortua da, irakurlea harrapatzeko gogoz, nahia-go duen bidetik jarrai dezan ihes-lerroaren arrastoa. Izan ere, mendea eta segundoa gurutzatzen diren lekuan, poetak zioen eran, etengabekoa da mugaren ariketa. Egun, igarotze bidean diren migratzaile ugari harrapatuta



geratzen dira hesi fisiko eta administratiboetan. Askotariko sare klandestinoen bidez mugitzen dira erbesteratu ekonomiko eta politikoak –ez ote dira, nolabait, gauza bera?–, izan Sahara azpiko herrialdeetatik Mediterraneo itsasoaren bestaldera, izan Herrialde Katalanetatik Belgikara...

Hain zuzen, Belgikako hiriburuan kokatu du kazetariak testu-sare honetako lehen korapiloa, 1940ko Bruselan. Nazien okupazioaren aurka antolatzen hasi ziren hainbat herritar, tartean Arnold Deppé eta Andrée De Jongh gazteak. Azken hori “Dédée” goitizenez ezagutzen zuten, eta gerora “Comète”

San Telmo Museoan 2015ean Comète sareari buruz antolatutako erakusketaren sustapen bideotik sorturiko irudia.



izango zen sarearen buru izan zen, atxilotu zuten arte. Honela adierazi zuen De Jongh berak: “Ez ginen gu izan Comète izena eman ziotenak ‘Dédée lerroa’ ize-nez ezaguna zenari. Geroago, 1943ko urtarrilean atxilotu nindutelarik, [kideek] pentsatu zuten hobe zela izena aldatzea (...), esan zutenez: ‘Zuek kometak

bezalakoak zarete, bat atxilotzen dutelarik, beste bat dator atzetik’. Horregatik eman ziguten izen hori”.

Neurri handi batean, emakume gazte zibilek osatutako sarea zen Comète. Okupatutako lurraldean erortzen ziren pilotu aliatuak babestu, elikatu, eta Bruselatik Parisera laguntzea zen beren

lehen egitekoa. Zeregin horretan aritu zen, besteren artean, Andrée Dumon, “Nadine” ezizenez ezaguna. *Je ne vous ai pas oubliés* (Ez zaituztet ahaztu) da haren autobiografia argitaragabearen izenburua –Donostiako San Telmo museo-ko liburutegian badute ale bat, sareko kide baten alaba Martine Le Grellek



eramana-. Liburuaren pasarte batean, honela dio Nadinek Dédéeri buruz: “Behala harrapatu ninduen haren irribareak, haren bizipozak eta barrenetik gainezka egiten zion energia jarioak”.

Parisetik hegoaldera jarraitzen zuen Comète sarearen ibilbideak, trenez, Lapurdiraino. Hain justu, Angelun bizi zen Elvire de Greef errefuxiatu belgiarra, “Tante Go” izenez ezaguna zena erresistentzian. Honako hau esan zuen Nadinek andre hartaz: “Ez gara sekula aski mintzatuko hari buruz. Aparteko norbait zen. Buruzagi izateko jaioa hura ere. Comète sarearen Hegoaldeko lurralde osoa martxan mantendu zuen hiru urtez”. Preseski, De Greef anderea eta haren senarra 1941ean sartu ziren sarean, eta seme-alabekin batera kolaboratzen jarraitu zuten erresistentziarekin, nazien okupazioa amaitu arte.

Dozenaka lagunek arriskatzen zuten bizitza, ihes-lerroei laguntza emanez, mugaren alde bietan. Maritxu Anatol irundarrak, esate baterako, hegazkinlariak elikatzeko janariz hornitzen zuen Comète sarea, baita oinetakoz eta informazioz ere. Kattalin Agirre saratarra, bestalde, Donibane Lohizuneko Euskalduna hoteleko langilea zen. Erresistentziaren alde lanean aritu zen gogotik, hainbat sarerekin kolaboratuz: “Comète”, “Margot”, “Nana”, “Mecano” eta “Perronet”. Lan arriskatu horietan, gainera, Josephine “Fifine” alabaren laguntza ere izan zuen –alabak 14 urte zituen 1942an–.

Dozenaka lagunek arriskatu zuen bizitza laguntza emanez mugaren alde bietan. Ezkerrean, lurre Telleria eta Enara Goikoetxearen ‘Azken bidaia’ dokumentaleko fotograma. Eskuinean, Florentino Goikotxea, Kattalin Agirre, ‘Dédée’ (bizkarrez) eta ‘Tante Go’ (bizikletan), telebista britainiararentzat erreportaje bat grabatzen.

ESKUINEKO ARGAZKIA: JC. JZ. DE ABERASTURI

Hariak, korapiloak, hutsarteak

Euskal mugalari ugari aritu ziren erresistentziaren aldeko sareetan. Esate baterako, *Gau lana. Kontrabandoa Bidasoa aldean* (Alberdania, 2011) liburuan, Rosa Arburua egileak honela dio: “Askok dira aipatzen diren izenak: Rufino Jauregi, Ezpeletako Jean Baptiste Zugarramurdi eta bere lehengusua Jean Pierre, Bernard Elissalde, Juan Pares, Don Jose Alcoz, Jean Baptiste Laporte, Maritxu Anatol, Hernaniko Florentino Goikotxea, Manuel Iturrioz... Azken hiru hauek, Comète sarea laguntzaileak”.

Ildo horretan, *Manuel Iturrioz, borrokalari baten bizipenak* (Alberdania, 2011) liburuan, honako pasarte hau ageri da: “Lezok [Urreiztietan] esan zidan taldeak antolatzen ari zirela, sare bat, eremu okupatuan erortzen ziren hegazkinlariak Gibraltar aldera eramateko eta guk mendiz Espainia aldera pasatzeko ardura hartu behar genuela. Eta esan zidan: ‘Zuk mugako pasabidea antolatu behar duzu’. (...) Handik

pixka batera andereño batekin azaldu zen [Dédée]. (...) Erresistentzia taldeak antolatzen zituen belgikar bat zen neska hura eta esan zidaten handik aurrera bidaia guztietan lagunduko zigula sareko arduradun gisa”.

Sareari buruzko ikerketa mardulene-tako bat da Philippe Le Blanc egileak 2015ean argitaratu zuena: *Comète: le réseau derrière la ligne* (Comète: lerroaren atzeko sarea). Haren esanetan, Manuel Iturrioz eta Tomas Anabitarte izan ziren Comète sareak izan zituen lehenengo gidak: “Hala ere, Florentino Goikotxea da ofizialki onartu eta ohoratu duten euskal gida bakarra”.

Egile batzuen arabera, 800 pertsona inguru lagundu zituen Comète sareak mugaren bestaldera. Le Blanc, bere aldetik, zalantzan jartzen du kopuru hori: “2006an eginiko ikerketa batek dioenez, 288 izan ziren”. Egilearen arabera, ehundik gora pilotu lagundu zituen Florentino Goikotxea mugalariak. Hala ere, “orain badakigu 280 iheslarietatik 170 inguru bestelako ibilbideetatik pasatu zirela, beste euskal gida batzuekin, [Comète] ihes-lerroaren gidaritzarik gabe”.

Hitzak, irudiak, martxak

Hainbat urteko ikerketa lana egina du Juan Carlos Jiménez de Aberasturi historialariak Comète sarearen Euskal Herriko ibilbideari buruz. Txertoa argitaletxearekin plazaratu zuen 1996an *Vascos en la Segunda Guerra Mundial*.



La red Comète en el País Vasco (Euskaldunak Bigarren Mundu Gerran. Comète sarea Euskal Herrian) liburua, eta datorren abenduan aterako du liburua-
ren berridazketa, material berri ugari gehituta. “Niretzat, Comète ikertzen hasi nintzelarik, interes handikoa zen mugaz gaindiko fenomenoak zela, Euskal Herriko mugaren alde bietan gertatzen zena eta nazioarteko izaera zuena; alegia, mundu mailako gertakari historiko handi bat nola gertatzen zen lurralde txiki batean, eta nola hartu zuen parte herriko jendeak”.

Hain zuzen ere, herritarrek mantentzen dute bizirik sarearen memoria, besteak beste, Comète Sarearen Lagunak elkarteak irailero antolatzen dituen martxa eta ekitaldien bitartez. Aurten izan da hemeretzigarren martxa, eta parte hartzaileek Lapurditik Nafarroara igaro dute muga, ihes-lerroaren ibilbide horren 75. urteurrena bete den honetan. *Diario de Noticias* egunkarian Mikel Urabaien kazetariak idatzi zuenez, 40 lagun inguru bildu ziren Jaurikoborda baserrian, iragan irailaren 16an. Han elkartu ziren, besteak beste, Inaxio Mihura mugalariaren eta Ian Covington pilotuaren semeak, José Ignacio eta Tom, hurrenez hurren.

Parte hartzaileen artean egon da aurten ere Iurre Telleria zinegile herna-
niarra, Enara Goikoetxearekin batera *Azken bidaia* dokumentala filmatu zuena, Comète sareari buruz. “2005ean hasi ginen ikertzen, eta 2011n estre-
i-

2018ko irailaren erdialdean Comète Sarearen Lagunak ibilaldia egin zuten.
Ezkerrean, sarearen laguntzari esker ihes egin zuen pilotu britainiarraren semeak bere Royal Air Force-n (RAF) plaka erakusten du.
Eskuineko irudian, ibiltariak Jaurikobordan, Itsasu eta Urdazubi arteko mugan, Mihura-Maskotena sendiak iheslarietara aterpe ematen zien tokian.

ARGAZKIAK: GIANLUCA URDIROZ

» **JUAN CARLOS JIMENEZ DE ABERASTURI (IKERLARIA):**
“Comète mugaz gaindiko fenomenoak zen, nazioarteko izaera zuena; alegia, mundu mailako gertakari historikoa lurralde txiki batean, eta herriko jendeak hartu zuen parte”

» **IURRE TELLERIA (ZINEGILEA):**
“Lagun batzuk egin ditugu bidean eta oso gustura betetzen dugun zita da Comète martxarena”

natu genuen, Donostiako Zinemaldian. Ondoren, San Telmo museoan erakus-
keta ederra antolatu zuten 2015ean, eta gure dokumentalean sartu ez zen material ugari erakutsi zuten bertan”. Dibulgazio lan moduan, *Azken bidaia* lanak badu balio berezia; batetik, ikus-entzunezko lana delako eta, bestetik, fikzio zinematografikoaren baliabideak erabili zituztelako testigantza batzuk ilustratzeko.

Memoria biziberritzeko aitzakia ematen du martxak, baita harremanak eta loturak sortzeko ere. Telleriaren esanetan, “lagun batzuk egin ditugu bidean, eta urtero oso gustura betetzen dugun zita da Comète martxarena”. Jiménez de Aberasturik dioenez, “memoriaren betebeharra” lantzeko modua ere bada, erakundeek babestu edo ez, herritarren mesederako dena. Ondo bidean, Comète Sarearen Lagunak hogeigarren martxa egingo dute datorren urtean, Bidasoa aldean, mugaren alde bietan.

Izan ere, aski adierazgarria da Arburuak *Gau lana* liburuan biltzen duen aipua, Berako Balkezeneko etxeko-andreak errana: “Gure ardiak harat-hunatian ibiltzen dira. Alde hontan jan eta bertzaldian ere. Beraiek zer dakite toki bati Frantzia deitzen diotela eta bertziari Espainia?” [sic]. Hala, honela amaitzen du Arburuak paragrafoa, eta kazetariak erreportajea: “Berririo frontarak ‘handien’ interesen baitan daudela esatera bueltatzen gara. Eta hauen interesak aldatuz gero, mugak ere bai”. ■

Hiztun Gazteen Topaketa Gasteizen

Etorkizuneko liderrak elkar ezagutzen

Iragan uztailaren 16tik 19ra Gasteizko Letren Fakultatean eta Oihaneder Euskararen Etxean HIGA, Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen Topaketa egin zen. 32 hizkuntza komunitatetako 65 gaztek hartu zuten parte. Horietako bat izan zen Teija Kaartokallio (Inari, Finlandia, 1998), samieraz mintzatzen den gaztea.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIA: ZALDI ERO

2011n egin zen estreinakoz Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen Topaketa. Gasteizen, orduan ere. Harrezkero, HIGAk ez zuen biderik egin, aurten berriz antolatu arte. Ekimena ez da hutsetik sortua, hainbat erakunde dira tartean. Gasteizko Udaleko Gazteria eta Euskara Zerbitzua dira bultzatzaile, eta babesle, berriz, EHUren Arabako Errektoreordetza eta Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedra. Laguntzaileetan da, bestalde, Oihaneder Euskararen Etxea. Batzorde Akademikoak, berriz, Garabide, Kontseilua, Soziolinguistika Klusterra, Unesco Katedra eta Londreseko SOAS Unibertsitatearen bultzada izan du.

HIGAREN zuzendari Beñat Garaioak adierazi dizkigu Topaketaren helburuak: “Gasteizko gazteei aukera eman nahi izan diegu beste hizkuntza gutxitu batzuetako hiztunekin harremanetan jarri eta hizkuntza biziberritzeko esperientziak ezagutzeko. Bestalde, euskararen aldeko jarrerak eta ekin-tzailetza areagotu nahi izan ditugu Gasteizko gazteen artean. Gainera, gazte ekintzaileak soziolinguistikari eta hizkuntza politikan trebatzea ere helburu izan dugu”. Gasteizko egonaldiak aukera eman die partaide guztiei “geroan ere harremanak eratzeke, dela hizkuntzen

biziberritzeko esperientziak trukatzeko, dela hizkuntza kooperazio ekimenak antolatzeko ere”. Horretan, Garabideren filosofiari jarraiki ari da HIGA.

Munduan topaketa bakarra da

HIGAREN zuzendariak parte-hartzaileen motibazioa goraipatu du: “Beharbada, horrelako topaketa baten beharra sentitzen zuten, edo aukera baliatu nahi zuten, besterik gabe, baina oso parte-hartze aktiboa izan zen, topaketako giroa oso gertukoa, eta hemendik aurrera gauzak egiteko grina, berriz, bistakoa. Beren hizkuntzen alde lan egiteko gogo dago liderrak edo etorkizuneko liderrak izango diren gazte horietan. Parte-hartzaileak, gutxi-asko, beren hizkuntzak biziberritzeko ekimenetan ardurak dituzte, edo hainbat egitasmoren sorreraren atzean daude”.

Horri dagokionez, HIGA topaketak nork bere konpromisoa berresteko bidea eman du. Garaioak esan digu: “Azken egunean, gazteok norbanako bezala hartu beharreko zenbait konpromiso zehaztu eta sinatu genituen; 22 guztira. Bertan geunden 65 kideok hitzetatik ekintzetara pasatzen bagara, hizkuntza gutxituen biziberritzean eragina izango du, seguru. HIGAKO parte-hartzaileek euren komunitatearen garaipenen berri eman zuten, adieraziz hizkuntzen biziberritzea konkista txikiz osatutako mu-

gimendua dela, eta hainbat esparrutan garaipen horiek lortzen ari direla”.

Hamalau euskaldunek hartu zuten parte. Atzerriko 32 hizkuntzako ekin-tzaileekin esperientziak partekatu zituzten, eta finean, beren trebakuntza hobetu zuten, “hizkuntza-komunitate bezala munduan dugun lekua aurkitzen laguntzen du HIGAK, eta gure hizkuntza biziberritzearen esperientzia kanpoko hizkuntza gutxituen egoeraren ezagutzarekin aberasteko ere balio du”.

Hiztun gazteen bigarren topaketa honen emaitzak ikusita, partaideek topaketa maiztasunez antolatzeko deia egin zuten. “Munduan bakarra den ekimena dela iruditzen zaigu eta esanguratsua da Gasteizen eta Euskal Herrian antolatu izana. Hainbat argitalpen eta forotan goraipatu da Gasteizen berezitasuna, sozialki baldintza egokiak dituelako hainbat jatorri eta helburutako ekimen sozialak aurrera eramateko”. Jakina denez, eta besteak beste, hizkuntza gutxituen esparruan Oihaneder Euskararen Etxeak *Hitz Adina Mintzo* hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloa antolatzen du, eta bi urte dira, bestalde, Gasteizko Udalak, Topagunearekin eta bertako eragileekin batera, *Anhitzak Gasteizko Hizkuntz Aniztasunaren Topaketa* antolatu zuenetik. Azken honi dagokionez, hor da #HIGA2020 traola, esperientziak jarraipena izan dezan.

Samiera Finlandian

Teija Kaartokallio (Inari, Finlandia, 1998) samieraz mintzatzen etorri zen Gasteiza. "Europarik iparrenean hitz egiten da samiera, Finlandian, Suedian, Norvegian eta Errusian. Hantxe dituzu samiak. Bederatzi samiera hizkuntza ditugu, hizkuntzak, eta bakoitzaren barruan, hizkelgiak dituzu. Ni, Finlandia partetik nator, non hiru samiera hizkuntza diren. Haietako bat hitz egiten dut, Norvegia partean ere hitz egiten dena, hain zuzen". 4.000 ipar samiera hitzun dira Finlandian, eta beste 2.000 hitzun, berriz, dituzte beste bi samiera hizkuntzek herrialdean. "Sami ize-na du gure herrialdeak, ez du estaturik, baina herria da".

Hego Finlandian jaioa da Kaartokallio, ipar samiera hitz egiten den eremutik kanpora. "Ez nuen etxean ikasi. Amak ere ez du oso ondo hitz egiten. Hala ere, senideak ditugu iparraldean, ama jaio zen alderdian, eta beti joan izan gara senideak bisitan. Urtean bi bidaia ere egiten ditugu senideak ikustera joateko. 1.200 kilometrora bizi dira, baina joaten gara. Haiek samieraz mintzo dira, beti ari dira samieraz, eta belarria egi-na daukat. Bestalde, han bizi izan nintzen urtebetez, eta hantxe ikasi nuen, egiaz, samieraz". Ordu arte, suomieraz hazi zen Kaartokallio, gehiengoaren hizkuntzan. "Suedia alderdian, suedieraz hazten dira samiera hitzunak. Norvegia aldean, norvegiaraz. Errusia partean, errusiaraz. Samiera ez den beste hizkuntzaren batean, gehiengoarenean, ha-ziak gara samiok".

Finlandian jaioa, hangoxe egoera eza-gutzen du ondoen. "Samierak Errusian du kinkarik handiena. Egokiena, aldiz, Norvegian. Desagertzeko zorian dagoen hizkuntza da, baita gehiengoaren hizkuntza den Finlandiako partean ere, hau da, iparraldean". Eta, hain zuzen, bertan du lege estatusa samierak. "Han, legearen arabera, samieraz egin litezke ikasketak, baina legearen arabera besterik ez, ze-ren eta askotan ez baitago baliabiderik,



Teija Kaartokalliok Sami herrian urtebete igarota ikasi zuen samiera, etxean ez baitzuen jaso hizkuntza.

ez irakaslerik ez beste". Hala ere, samiar gazterien %65 samiera gehiengoaren hizkuntza den eremutik kanpo bizi da, non samierak batere babesik ez duen.

Samierak badu telebis-ta saio bat edo leihatila bat. "Bizpahiru minutu-ko albistegia da. Ez da egunkaririk, aldizkari-ren bat... Aukera handi-rik ez. Gaitz erdi, Norvegiako aldean bestela da egoera, eta hango samieraren produkzioez baliatzen gara Finlan-dian. Muga hor da, baina mugaren gainetik dabil samiera. Gure hizkun-tza baino geroagokoa da muga". Kaartokalliok dioenez, senideak dira Finlandia eta Norvegia-ko samietan, eta jende mugimendua gauza ohi-koa da.

Etorkizunari buruz ez da guztiz baikor. "Indi-genak gara samiok, bai-na gure eremu naturale-tik, tradiziozkotik kanpo bizi gara asko, gure kul-turatik aparte, eta kul-tura eta hizkuntza ba-tera datoz. Kulturarik gabe, ez duzu hizkuntza zeureganatuko, eta hiz-kuntzarik gabe, nekez jabetuko zara, osoki, kulturaz. Bata besteare-kin datoz. Samiok, ber-riz, hirietara ari gara, eta horrek kultura alda-tzea dakar ezinbestean". Eta hizkuntzari eusteko

lanak areagotzea. "HIGAn ikusi dudanez, zailtasun bertsuak partekatzen ditugu hizkuntza gutxituetako hitzun guztiek, nahiz bakoitzak bere espezifikotasunak dituen". Erantzunik ez dute, aurrera egi-teko erabakia hartua besterik. "Erantzuni-k ez, baina funtsezko galderak egiten asmatu dugu, bederen!", bukatu du irri-barrez Kaartokalliok. ■

BABESLEA: LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA



EUSKARALDIA



**EUSKARAK
365
EGUN**

Lezo EUSKARALDJArekin
Eman izena
urriaren 8tik aurrera



Lezoko Unibertsitateko Udala

RAMEN: ATZOKO BEHARRA, GAURKO MODA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Tokio, 1945eko urria. Japonia errenditu eta Bigarren Mundu Gerra ofizialki amaitu eta hilabetera, hiriburuan merkatu beltzeko 45.000 postu inguru zeuden. Horietako askok janaria saltzen zuten, nagusiki "ramen" izeneko zopa edo eltzekoa.

Jun Ishikawa (1899-1987) idazle modernistak horrela deskribatu zuen janari postu haietako jarduna 1946ko *Yakeato no Iesu* (Jesus errautsetan) lanean: "Janaria saltzeko negozioa hain ondo daramate, plateren soinu hutsarekin yen billete merkeenak edozeinen patrika akituetatik hegan ihes egiten dutela. Tranpa baten edo malgukidun gailu baten modukoa da; plateren hotsen oihartzuna bezero guztien sabel hutsetara iristen da eta jateko gogoia eragiten die".

Baina egun haietan tokiotarrek ez zuten asko behar gosea pizteko. Gerraosteko urritasuna zen erreklamorik onena.

Gainera, 1945ekoa azken 42 urteko arroz uztarik txarrena izan zen Japonian. Herrialdea 1952. urtera bitartean okupatuko zuten estatubatuarrek garia inportatzeari ekingo zioten. 1948tik 1951ra Japoniako urteko ogi kontsumoa 262.121 tonatik 611.784 tonara iritsi zen. Baina okupatzaileen neurriak ez ziren nahikoak herritarren sabelak betetzeko, eta gariak legez kanpoko bidea



Ueno Hirokoji merkatu beltza, Tokion, 1945 urte inguruan. Gerraondan, horrelako tokietan saltzen zuten egun hain modan dagoen ramen izeneko eltzekoa.

OLD TOKYO

ere egin zuen haienganaino, merkatu beltzeko ramenaren bidez.

Plater hura Txinatik sartu zen uhar-tean XIX. mendearen amaieran, txinatar etorkinen eskutik. Jatorriz, gariz egin-dako fideoei txerrikia eranstean zieten. Egun ramen sorta zabala daukagu eskura, orotariko osagaiez egina, baina merkatu beltzeko ramen hura askoz sinpleagoa zen: fideoak, soia salda, txerrikia, oilaskoa eta *niboshi* (sardina lehorrak). Dena nahastuta eta dena berdin zerbitzatzen zuten. Ez zegoen tokirik bezeroen gutiziarako. Hori bai, zapore biziko eta gantz askoko jakiak primeran erantzuten zion herritarren behar gorriari.

Ramen postuak legez kanpokoak ziren, jakina, eta nagusiki yakuzek edo japoniar mafiek kontrolatzen zituzten. Baina 1950etik aurrera, urritasuna pixkanaka gainditzen joan ahala, legeak ere arindu zituzten. Horrek, aurrez legez kanpokoak zen jardueraren gainbehera ekarri ohi du maiz. Baina japoniarrek ez zioten beharrrak sortutako plater hari uko egin. Ramen saltzaileak ugaritu ziren eskaerari erantzuteko, eskaintza zabalduta zen eta, hala, egun, Japoniako jaki nagusietakoa da.

Duela bizpahiru urtetik hona, gurean ere modako plater bihurtu da ramena. Japoniarrentzat bizirik irauteko ezinbestekoa zena, instagrameko argazkia da orain. ■



DAVID STUART / LA CORONA

Kaanul erresumaren hedapena zizelkatuta

Guatemala iparraldeko La Corona aztarnategian K.o. VI. mendeko harrizko aldare ikusgarria topatu zuten iaz, eta, orain, 1,20 metroko piezak zizelkatuta zeukan informazioa jakinarazi dute.

Orain arte ezezaguna zen Kaanul dinastiako agintaria irudikatzen du alda-reak: Chak Took Ich'aak. Garai hartan, Kaanul eta Tikal dinastiak maien lurral-

dea kontrolatzeko borrokan aritu ziren, eta lautadetan Kaanul nagusitu zen. Er-liebeak dioenez, askotariko estrategiak erabili zituzten eskualdea mendean har-tzeko: konkista militarrek, familia nugu-sien arteko ezkontzak... Ahalegin horren emaitza nabarmenena 562an lortu zu-ten, Tikal hiria, arerioen gune nagusia hartu zutenean. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

JATORRIZ ASIAKO DEN LANDAREA JOKALDI, PARTIDA		PERTSONAIA- REN IZENA DENDAK EZARTZEKO EREMU		AGORTU ADITZAREN INFINITIBOA		RHESUS FAKTOREA EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA		IXILIK IBAIETAKO PASABIDE		JOAN DEN GAUEAN ETZANDA IPINI		BOSNIAKO SERBOKROA- ZIERA SAGUZARRA	
				ZERBAIT GEHIAGO GALIOAREN IKURRA									
JAUZALKI TOKI BATEKO LANDAREEN MULTZO						PERTSONAIA- REN ABIZENA 500 ERROMA- TAR ERARA							
									ITSAS ARRAIN IZAN EZIK, SALBU				
NEKA, UNA	3,1416 KOBREZKO DIRU ZAHAR										OMEN NAFARROAKO HERRIA		
			ALKATEORDE						ZINEMA DETEKTA- GAILU				
EGOKIA KROMOA													
		10 ERROMA- TAR ERARA LANTZEN DEN LUR-ZATI MUGATU							ZEIN LEKU- TARA KULPA				
NAUKA EZINBES- TEAN NAHITAEZ				SUARI DARIONA ZERGA EZAGUNA		ELIKATU ZENDU		ENERGIA RONA		HERRI HIZKERAN, ETA GAIXO			UGAZTUN BASATIA
												KONTSONAN- TEA MODU ATZIZKIA	
SANTU, DEUN ZIZTRIN					GORPUTZ ADAR BATEAN SENTIBE- RATASUNA GALDU IODOA								
								MENDIXKA					



ORIO CLAVERA

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.

		6		4	9			
	2					6		
8						4		9
		7		3	8			
			2			9	7	4
							6	
								7
	1		9		5			
3			4			8	9	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Gorputzaren barrunbe.
2. Zuhazpeko babesgune.
3. Baratze landare lekadunak.
4. Murmurikatu.
5. Buruaren alde bietako lekua.

Ebazpenak

3	6	5	4	7	2	8	9	1
7	1	4	6	8	5	2	3	6
2	9	8	1	6	3	5	4	7
1	5	2	7	9	4	3	6	8
6	8	3	2	5	1	9	7	4
9	4	7	6	3	8	1	2	5
8	7	1	3	2	6	4	5	9
4	2	9	5	1	7	6	8	3
5	3	6	8	4	9	7	1	2
P	U	R	I	L	Z	E	N	O
I	N	R	I	T	U			
N	Z	E	R	A	H	A	B	A
T	A	E	J	K				
A	N	O	R	A		X		
R	A	D	A	R		A	N	O
N	E	I	Z				I	K
I	E	I	A	T			P	
N	U	T	I					
S	O	R	A					
O	A	G	O					
B	B	I	R					

Lokla.

3. Babak, 4. Erasl, 5. 1. Sabel, 2. Abaro,

5x5:

Udara tronpetazalea



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Lasaitu ederra hartu dut egun argia baino gaua luzeagoa egin den egunean; eta poztu sei hilabete horrela izango ditugula jakinda. Uda ederra joan dela ezin uka, baina udazkenari usain hobe hartzen diot. Landareei udazkenaren iritsierarekin “klak” egiten die buruak. Ordu ilunak argiak baino gehiago dira, eta segidan etorriko da negua. Hotzak etorri aurretik haziak zaildu egingo dituzte, janda edo larru-ilean itsatsita baten batek hara-hona heda ditzan. Horretarako fruituak onduko dituzte; uzta sasoi nagusia da. Horiek udazaleak izan eta bere zikloa uda partean osatzen duten landareak dira. Beste batzuk, hotza eta egun laburrak baliatzen dituzte zikloa osatzeko. Gustuko dituztelako edo behartuta, gainean dituzten beste landareek hostajea galdu eta argia hartzeko urteko aukera bakarria dutelako. Negua profitatzen duten landare horiek orain ari dira kimu berriak irekitzen; bigarren udaberria da. Makina bat aldiz irakurri-entzungo zenidaten Euskal Herriak bi udaberri dituela.

Bi udaberrien arteko udara tronpetazalea da, amorratua. Tronpeta musika tresna eskandaloso samarra iruditzen zait beti. Herriko jaietan edo Tolosako ihauterietan txarangarekin aurre-



ra-atzera ibiltzen ginenean bezala, orkestra handienez tronpeta nabarmen entzuten denean. Eskandaloso samarra. Ba Joseph Haydn edo Anthony Plog baino tronpetazaleagoa da udara. Agian horregatik ez naiz ni udazalea.

Udazkenari ongi-etorria egiteko egunean, sagastien paisaietan barrena ibilaldira bat egin dugu Oihana Iguaran eta Andoni Egaña poeten bertsoaldiak entzunez. Bero zen eta zuhaitzen eta ereinotzen itzaletan, gozo eta samur aritu ziren beren musika sortzen. Ingu-ruan, eskandalua zen nagusi: tronpeta. Tronpeta formako lore deigarriak han

eta hemen. Udari agur esan ezinik, luzatu nahian, tronpeta-loreak ageri-agerian harro erakusten zituzten gau-loreak (*Mirabilis jalapa*), lurruntzak edo ezkerre zuriak (*Calystegia sepium*), oeneterak (*Oenothera biennis*), heriotzorriak (*Nerium oleander*), petuniak (*Petunia x hybrida*), Siriako arrosak (*Hibiscus syriacus*), kuia luzeak (*Cucurbita moschata*) eta ipomea gorrindolak (*Ipomoea purpurea*). Eskandalua izugarria zen eta tartean gehiago ere izango ziren...

Orain, ordea, beste musika bat dator. Isil bitez eta ezkutatu tronpetak. ■

Basherri

GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK

info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus

HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!



BIONEKAZARITZA ELKARTEA

Arabako nekazaritza eredu ekologikorantz mugitzen



Garazi Zabaleta

@tirikitrann

ARGAZKIA: BIONEKAZARITZA ELKARTEA

1993an sortu zuen Bionekazaritza elkarte Arabako ekoizle talde txiki batek. Lurrarekin errespetuzko harremanak bultzatzea eta garai hartan oraindik hain zabaldurik ez zegoen eredu ekologikoa sustatzea zuten helburu hasiera hartan. "Orain baino askoz mugimendu txikiagoa zen, eta bultzatu eta laguntzeko sortu zuten taldea kide horiek", azaldu du Koldo Rey Abasolo elkarteoko egungo koordinatzaileak.

Nekazariei aholkularitza eta babesa

Ekoizpen ezberdinetan diharduten ekoizleek gain, kontsumitzaileak ere badira elkarteoko bazkide gaur egun, eta erakunde eta talde askorekin ere kolaboratzen dute. Azken urteetan aholkularitza eta dinamizaio teknikoak dira euren jardunaren atalik garrantzitsuenak. "Teknikaria daukagu elkartearen, jada ekoizpenean dauden pertsonak laguntzeko edo hasi

nahi duten ekoizle berriei aholkularitza egiteko". Nekazaritza ekologikoan jardun nahi duten horiei lanak erraztea da helburua. "Askotan gertatzen da nekazaritzan teknikariak joatea eta esatea 'hau horrela eta horrela egin behar duzue'. Aholkuak eman beharrean dena haiek esaten dute askotan, modu bertikalean". Eredu bertikal horren ordeztu aholkularitza eta laguntza modu horizontalean egitea dute asmo Bionekazaritzan. Horren adibide da, esaterako, urritik abendura bitartean antolatu duten Agroekologia ikastaroa. Jada proiektuak martxan dituzten eredu ekologikoko ekoizleak izanen dira kurtsoko gidariak. "Beraien jakituria zabaltzeaz gain, beraien lana ere balorearen jartzen da horrela", dio Reyk.

Bionekaraba azoka

Bionekazaritza elkarteak bere azoka egiten du urtero: Bionekaraba. Urriaren

6an izanen da aurtengo edizioa, Gasteizko Foru Plazan. "50 postu inguru jartzen dira, denak ekologikoan lan egiten duten ekoizleak. Musika, herri kirolak, umeentzako ekimenak, jatekoa eta edatekoa... denetik egoten da". Arabakoez gain, Euskal Herri osoan eredu agroekologikoan diharduten ekoizleak hurbiltzen dira Gasteizera.

"Arabako herrietan bizitzeko aukera handiegirik ez dago gaur egun, eta geroz eta nekazari gutxiago daude". Nekazaritza eredu industrialak arazo horiek konpondu baino okertu egin dituela iritzita, eredu agroekologikoan ikusten du etorkizuna Bionekazaritza elkarteak, eta bide horretan ari da lanean: "Nekazaritza ekologikoaren oinarri teknikoaz gain, arlo soziala ere landu behar da: tokikoa, tamaina ez oso handikoa eta besselako ekoizpen era batekoa bultzatzen dugu". ■



www.navarraecologica.com

Zaporea, osasuna eta jasangarritasuna

Nafarroan gero eta jende gehiago nekazaritza ekologikoan dihardu gero eta pertsona gehiagok bizitzeko gauza garrantzitsuez ohartzen baita.



Egin apustu ekologikoaren alde
Zure etxean, hotelan, jatetxean, tabernan...



azoka

NOLA SALDU GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" botoia. Bost minutuan jar daiteke edozer salgai Interneten, denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko komunitatearen arteko harremanak indartzeko, besteei zerbait emateko aukera dugu. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.

www.argia.eus/azoka • [@argiaAzoka](https://twitter.com/argiaAzoka)

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...


87
salgai

Libre motxilak

Bizkarrean eramateko motxilak. Diseinu eta kolore asko daude aukeran eta motxila bakoitza bakana da.

- Egilea: Gorane Guillen- Gora Kat.
- Forma: Motxila janztean, goiko kremaileira itxita geratzen da. Kremaile radun poltsiko txiki bat du atzeko aldean eta beste poltsiko txiki bat zabalik barruan.
- Neurriak: 34 x 44 cm.

65 euro



Urriaren 11n, 10:00etan...
ARGIA Jendearentzat musutruk jarriko ditugu argia.eus/azoka webgunean. Ez da zozketa, azkarren ibiltzen denak eramango ditu!

34
gai
musutruk



Bizi Baratzea lamina 25 eta 26

Ainara Azpiatzuk eta Joseba Larratxek eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 zm.



Txistua

Zorro eta guzti.



ARGIAren diseinua Txinara doa



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Deskontuan idatzi dio kazetariak diseinatzaileari mezua. Azken minutuko azken jokaldian atezaina kornerra errematatzeraz igotzen den moduan. Eta ez zaio arraroegia egin, asteroko sestra baita diseinatzailea maketaziorako testuaren beharragatik kazetariaren atzetik ibiltzea. Baina jasotako mezuan ez du aldizkarirako edukirik jaso. Oraingoan berari tokatzen zaio galderak erantzutea, bera da elkarrizketatua. Sergio Labrador (Urnietan, 1977), ARGIA eta Antzako diseinatzailea.

2005etik ari da Sergio Antza inprimategian lanean eta astekaria diseinatzen (eta da) bere lanetako bat. Baina hasiera batean aldizkariaren diseinua bakarrik zena pixkanaka ARGIAri sortzen joan zaizkion diseinu-lan gehiago izatera pasa da, eta azken denboretan jardun erdiz Antzarentzat eta beste erdiz ARGIArentzat aritu da lanean. Orain, baina, Txinara doa denboraldi baterako, eta ale honen diseinuarekin batera esan digu gero arte.

Irakurleak testua irensteko kazetari txukunaren luma bezain garrantzitsua

zaigu itxura. Begietatik sartzen zaigun lehen gauza. Begiratu batean iruditzen zaiguna. Astekaria erakargarri eta irakurteraz egitea da diseinatzailearen lana. Edukia eta estetika bateratzea. Lan nekeza. Agian lurtarren begietara ezer esan nahi ez duten makina bat detaileren arduradun, amaierako lana detaile txiki guzti horiek aldatzen dutela jakitun. Baina zer da denok buzoia ireki eta ikusten dugun estreinako irudia? Azala. Eta azken denboretan bere eskuetatik pasa ohi da astero. Horretarako ordena: gaia, irudia eta titularrak. “Azal potentzia lortzeko elementuen harmonia behar da”, dio diseinatzaileak; “azalak deigarria izan behar du eta horretarako irudia da osagai nagusia; baina titularra ere oso garrantzitsua da eta niretzat su-jerentea eta zuzena izan behar du”.

Astekariaren azken diseinu aldaketaren buruetako bat izan da urnietarra, eta “diseinu korrektoa, batez ere garbia” dela dio. “ARGIAk argitaratzen duen informazio mota eta kopurua kontutan hartuta, diseinua eta edukia nahiko orekatuta ikusten ditut”.

Ez da betirako agur bat, eta berriz ere, bixitan bada ere, Oria inguruan ikustea espero dugu. Gozatu esperientzia, Sergio. *Xie xie!* ■

ARGIAko kide egiteko arrazoiak:

“Euskal Herrian, estatuan eta munduan gertatzen denaren euskarazko jarraipen periodistiko independentea, sakonekoa eta ikuskera eraldatzaile/askatzaile batetik egindako aldizkaria eta irakurleen sarea indartzea”

Ricardo Ortega Gonzalez
(Lasarte-Oria)

“Artikulu interesgarriak eta euskaraz idatziak”

Iñigo Olano Lopetegui
(Tolosa)

“Ez dut laguntzeko egiten, irakurtzeko baizik. Oso interesgarria da”

Jose Luis Ruesgas
Perez de Arrilucea
(Hendaia)

ARGIA diseinatzaile bila

Orri honetako artikulu nagusian irakurri dezakezunez, orain arte astekariaren maketa, azalak eta publizitatea diseinatzen dituen langilearen ordeko bila dabil ARGIA. Egun osoko lana izango da, Lasarte-Oriako egoitzan egitekoa. Interesa duenak bidali ditzala bere curriculum eta orain arte egin dituen diseinu lanen bilduma helbide honetara: curriculumak@argia.eus.

Sonia González

“Ez gara sekula guk uste dugun modukoak, ezta idazten dugunean ere”

Barakaldo, 1977. Euskal Filologia ikasia. LABeko komunikazio arduraduna izana, gaur egun –bere berbetan– langile xumea. Eleberria eta poesia landu ditu idazle gisa. Hamahiru urtez isilik egon ostean, *Erreka haizea* (Susa) saioa plazaratu du. Ez da aise sailkatzea. Errekako haizea dakarren saioa idazteaz gain, botere, isiltze eta heriotzaz idatzi du idazle berrituak, testu laburretan idatzi ere. Liburuko piezak nola, halakoak elkarrizketa honen erantzunak, ziztagarriak.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

“Zergatik utzia nion idazteari galdetu ohi zidaten. Inork gutxik ulertu ahal zuen ezin niola literaturari barkatu errealtateaz sendatu ez izana”, idatzi duzu. Liburu honek zein neurritan sendatu zaitu?

Honek ere ez nau errealtateaz sendatu, baina hainbeste urte pasa ostean bizitzarekiko beste aldarte bat hartu dut. Bizitzaren aldi berri bat jorratzen hasten zarenean pentsatzen duzu, horrek emango dizula beste zerbaite, edo aldatuko zaituela. Literatura errealtatean sartzeko lagungarria da oso, baina literatura egiteak beste inor bihurtuko zaituela pentsatzea ez da erreala. Horiek gaztetako usteak dira, zure bizitzaren gainean eraikitakoak. Gerora konturatzen zara ez dela horrela. Eginbide bat egin ostean, bizitzaren baldintzak direla medio, konturatzen zara ez dela zure barruan iraultza suertatuko, eta beste modu batez ekin behar diozula zure bizitzari.

Literaturaz beste, nork bere espiritu kritikoa landu behar duela esan nahi al duzu? Norberaren bizitzan eta militantzia politikoan?

Nolabait. Nire bizitzako atal inportanteak dira politika, sindikalgintza eta militantismoa. Liburuan agertzen da sentimendu hori ere, aurrera egin behar izatea, zer edo zeren bila joatea. Pertsonok horretan ahalegintzen gara, baina sekula ez da nahikoa. Etengabeko bilaketa horretan jardun arren, nahikoa ez izatearen sentimendua gurekin dago. Izan ere, ez gara sekula guk uste edo pentsatzen dugun modukoak, ezta idazten dugunean ere.

“Ba al naiz ni idazten ari naizen hau?”, galdara, agerikoa da zure liburuan.

Betiko dikotomia, ezta? Pertsonaren eta pertsonaiaren arteko bitasuna. Liburu guztietan hori dago, ez bakarrik des-

kribatzen duzun inguruan, pertsonaia bat asmatzen duzu eta nahitaez zu bertan zaude. Zure sentipenak, pentsamenduak, pertsonaia horren larruan edo barruan sartu zarelako. Dena den, *Erreka haizea* ez da nobela, ez da fikzioa ere, beste zerbaite da. Gehiago agertzen da pertsona, pertsonaia baino. Literatura egiten dugunean, normalean, ez duzu zure egunerokoa idazten.

Ez da aise liburua sailkatzea genero literarioa legez. Zuk nola definituko zenuke?

Ni naizen moduko generoa da, nahasia. Kostatzen zait apur bat arreta gauza bakar batean mantentzea, ideiak alde diferentetatik etortzen zaizkit eta, liburua nire izaeraren isla da. Pentsamenduak dira, lotuta dauden gaiak edozelan ere. Gai horiek hainbat orritan jorratu barik, alde diferentetatik lotutako piezak dira. Nire nortasuna halakoxe da.



Friedrich Nietzscheren *Zientzia alaia* saia-keraren *Argiak eta itzalak* aipatzen duzu abiaburuan. Aipu horrexek ematen dio liburuari taxua, nolabait.

Liburu hori idazte prozesuan berrirakurri nuen: “Zein ongi aipua liburura ekartzeko, liburua zer den aditzera emateko”, pentsatu nuen. Liburu hori aipu bilduma bat da, piezak edo apunteak dira hasieratik amaitu arte. Kasualitatea izan zen, baina literaturak edo liburu batek badu horretatik asko.

“Marian de la Fuenteri, gure Marijaiari”, eskainia. Hori ez da kasualitatea.

Patua da. Liburua ateratzear zegoela Marian hil zen. Niretzat eta bere ingurukoentzat pertsona oso inportantea izan da. Bizitza osoan lan itzela egin duen horietako bat. Asko dira, baina beren izenak inon agertzen ez direnez, Marianen kasuan bezala, bada, badoaz pena eta gloria barik. Horrek zer pentsa eman behar digu. Emakumeak izaten dira askotan. Gero arkeologia feminista egin behar izaten dugu. Adibidez, egun emakume irakasleekin gertatzen ari da. Herrientzat edota Euskal Herriarentzat inportanteak izan diren pertsonak berreskuratzen ari gara. “Marian dela Fuente galduko den izen horietako bat ote da”, galdetu diot nire buruari. Euskal munduan oso inportantea izan zen, inurri lan eskerga egin zuen. Fredi eta Xabi Paiak Kanpomartxon gogoratu zuten bertsotan. Eskerrak haiei ere.

Emakume batek idatzia da liburua. Gizonetzkoarekiko kontraposizioan, esan nahi dut.

Emakumea naiz eta hautu kontzientea egin dut, emakume izaeraren inguruan hausnartzea. Atentzioa ipintzea gai horretan eta punta ateratzea. Ez ezkutatzea ezer, ez egitea ezer neutro-rik, zerbait desorekatua egitea, nolabait esanda. Tira, nik ahal dudana neurrian eta moduan egin dut.

Isiltasunaz idatzi duzu: esan behar denaz eta esan behar ez denaz...

Isiltasunaren gaiak bereziki interesa pizten dit. Gainera, arlo diferentetatik jorratu dut: emakume bezala isildu beharraz, gizonari berba utzi beharraz, ez molestatzeko. Apaltasun batean egon behar izateaz idatzi dut. Familiako isilpenaz, bestalde. Gerra zibilaren ondoriozko hainbat harraskadetak isilpen gogorraz. Zelako era-

gina eduki duten horiek guztiek guregan! Izan ere, historia barik utzi gaituzte, galtzaileen historia da gurea. Gerren ostean batzuek badakite zerbait beren familiaren inguruan, baina galtzaileok ez dakigu ezer. Badakizu historia baduzula noski, bizirik zaude eta, aita-ama daukazazu, gurasoak, baina fantasma moduko bat daramazazu, isilpen moduko bat. Ahizpen artean bizi izan dugu hori. Izaera eraiki dugu beti aurrera begira, atzera begiratu barik. Horrek zelako arrastoak uzten dituen! Nago baduela zerikusia aurrera begiratu behar horrekin, zer edo zeren bila ibili behar horrekin, premia baten atzean ibili beharra-ekin.

Gure iragana gogoratzeko gauza al gara?

Zailtasunak daude, psikologikoak eta soziologikoak. Horretan txarrenak dira isilpen behartuak, zure inguruak berba egiten ez uztea, isilaraztea. Ezin kontatzea, baina kanpotik ezarritakoa. Badaude ere barruko isilpenak, igual nahiko zenuke, baina ezin duzu momentuz ezer esan. Baina horiei eman dakieke irtenbide bat. Isilpena debekatua edota behartua denean zailagoa da iragana gogoratzea.

Piezak pieza, amarekiko pasarte batean, hilekoa deskubritu zenueneko kontatu duzu. Umorez. Gauza serioak, baina umorez heldu dituzu. Zure izaeraren isla hori ere.

Pieza horrek badu bere puntu ironiko edo barregarria, baina badu ere irakurketa sakonagoa. Lehen hilekoa izan nuenean, amak "gauza inportantea da emakume batek bere kuleroak ongi eta eskuz garbitzea", esan zidan. Horixe izan da gure heziketa. Badago edo egon da mistizismoren bat gai horren inguruan, eta ez luke behar. Gure papera zein izan den adierazten du pieza horrek.

Moja eskolara joan zinen. Masturbazioak hitz egin zizuen moja bat izan zenuten.

Begira, hura pertsona ona zen, bakarra. Sistemari beti dago salbuespena, araua baiezatzeko.

Andoni pertsonaia hor dago. Bikote ohia. Nor da Andoni? Edo asmatu al duzu?

Nire inguruko guztiek badakite nor den. Noski, ez dut den-dena ipini ere, bere aurpegia estandarizatu dut. Baina gure barneko zer edo zer mugiarazi behar baduzu, halaxe idatzi behar duzu.

"FAMILIAN TXIKITATIK ESAN DIDATE FARANDULARAKO JAIO NINTZELA"

Erreka haizea liburuaren azalean idazlearen eguneroko ingurua ageri da: erreka eta zubia. Lekeitio, Mendexa... Lea-Artibaitik datorren haizea, hor nonbait.

Zer deritzozu literaturaren inguruko bizipenari? Kazetarien aurreko aurkezpenak eta hitzaldiak aise daramatzazu?

Niretzat ez dira arazoa, ez lehen ez orain. Familian txikitatik esan didate jaio izan nintzela farandularako. Oholtza gainera igotzeak ez dit lotsarik eman inoiz.

Liburuak izan duen jarreraz zer diozu?

Ez da erraza jakiten zein harrera eduki duen. Inguruko jendeak irakurtzen du beti edo gehienetan. Eta liburu hau inguruko jendearentzat gogorra izan da, momentuan ez nintzen konturatu, ez baitut pentsatzen nire inguru-ingurukoek irakurriko dutenik, irakurle ezagun batek ja-

soko duenik. Aldion, batez ere nire inguruko jendeak leitu duela konturatu naiz, eta haietako batzuentzat eta niretzat ere gogorra izan da. Baina, oro har, jendea-ri gustatu zaio. Eta inportantea izan da, ni gustura gelditu naizelako. Prozesua amaitu, eta azken ukituak eman ostean, oso pozik geratu nintzen. Horrek ematen dizu pista bat, norberak badaki egin duena ondo dagoen edo ez, balekoa ote den. Tira, prozesu horren ostean, publikatzean berriz irakurtzen duzu, eta esaten diozu zure buruari: "Pasarte hauek nik idatzi ditut? *Joe tia*, zelako ideiak daukazun".

Susa argialetxean aldaketa izan da. Gorka Arreseren segidan, Leire Lopez Ziluaga da editore berria. Zer moduz?

Oso ongi. Hamahiru urteko isilpen osteko buelta izan da nirea. Leirerentzat hasiera izan da. Bere eta nire aldetik berezia izan da. Zirrargarria.

Zer esan dizu berak?

Eskatu nion ez leitzeko. Ez dakit irakurri duen. Ez dut horretaz hitz egin nahi. Esan dizut lotsarik ez dudala, baina horretaz berba egiteak lotsa ematen dit.

"Nire minbizia izan zaretenok bizi-mina eman didazue", diozu.

Hainbat pasarte larri ikaragarriak dira, edo durduzagarriak. Bestetziek zer pentsa eman dezakete. Agian, bizitza beste ikuspegi batetik begiratzeko piezak dira, hainbat gaitara hurbiltzeko baliu dutenak. Ahalegindu naiz, gutxienez, gai horien inguruan burutazioak egiten, edo gaitara hurbiltzen. Heriotzaz edota suizidioaz idatzi dut, gai errepikakorrek dira, baina nik oso momentu latzetan idatzi dut liburua.

Zauriak ez dira sendatzen minaren geografia esperimendu barik. Arantzaren bat atera al duzu?

Ahaleginetan arituz gero, arantzak ateratzen dituzu. Badira hainbat atal filosofiko, baina soziologiara hurbiltzen ere saiatu naiz. Asko interesatzen zait inguruko jendearen portaera. Horiek askotan agertzen dira, taldeko jendearen portaera batez ere, eta botere ha-

rremanak. Zelan ikusten dituzun botere-harremanak, nola pairatzen dituzun. Horien inguruko ariketa eginez gero, konklusioak ateratzen dituzu. Idaztean zenbait ondoriotara hurbiltzen zara, idaztea ariketa hori egitea ere bada.

Sindikalgintzan, ingurukoaren boterea sentitu al duzu inoiz?

Ez pentsa. Estratifikazioak ere badaude, noski. Baina liburuan batez ere, nire eguneroko bizitzaz ari naiz, familiakoaz, iraganeko eskola garaiaz, "lagunen" artekoaz, kakotx artean. Horiek lanekoak baino bortitza goak dira askotan. Dena den, pertsona izan dut hausnarketan oinarria, ez gizona ez emakumea zehazki ere.

Euskal identitateaz ere idatzi duzu. Barakaldokoa zara eta! Zer da kanpokoa zer hemengoa izatea?

Euskal identitate asko daude. Urteak pasa ahala identitateak moldatzen joan dira. Gu bai garela etorkin olde erraldoi bateko seme-alabak, gurea izan zen herri bat okupatzea. Gure kasuan, Barakaldo. Ni haurra nintzela 150.000 lagun bizi ginen bertan eta ia inor ez zen bertokoa. Garatzen duzun identitatean zerbait arraroa dagoela sumatzen duzu,



bertoko zara, baina inor ez da bertokoa, mundu guztia beste toki batekoa da. Edo nahi du toki batekoa izan, sus-traiak izan... Gu jaio eta bizi ginen ka-leetan ezagunen bat edo beste genuen. Eta? Inguru horrek egin gaitu. Guk bizi izan genuen ingurua herri berri bat zen, inorena ez zena. Hori izan da euskal he-rritar bihurtzeko modua. Euskalduna izatea beste gauza bat da, noski.

Nola jaso zenuen euskalduntasunaren kontzientzia?

Bada, nahiko modu naturalean, gezurra ematen badu ere. Ezkerreko familiakoa bazara eta bertokoa, horrek eman behar dizu izateko modua. Noski, hor badau-de maila bi: lehenik euskal herritarra bilakatzea, eta gero euskalduna izatea. Ezberdina baita. Euskal herritarra izateko modu anitz daude, baina euskalduna izateko modu bakarra. Hau da, euskaraz bizitzea. Horrek mundu bat zabaltzen baitizu, Euskal Herrian dagoen beste mundu bat. Euskara barik ez zara euskalduntasunaren mundura heltzen ahal sekula. Hizkuntzaren bitartez baino ezin duzu kultura bat jaso, bestela folklorean geratzen zara. Barakaldon ezin bestela izan.

Liburuan diren aipuak eta beste pentsa-larien erreferentziak kontuan harturik, zer iritzi duzu plagioaz?

Plagioa da ordenagailuko teklatuan "Ctrl + C" sakatzen baduzu, hori plagio gordina da, kopia. Irakurtzen ari zaren liburutik elikatzen bazara, ideia bat har-tu eta beste ideia bat sortzen baduzu, hori ez da plagio egitea. Bestela non oi-narrituko zara? Hasteko, zure bizipe-netan jasotzen duzun horretatik, sortu eta birsortu egiten duzu. Literatura eta edozein lan sorkuntza hori da, ez da ba-karrik sortzea, birsortzea da. Sindikatu-ko lankide batek esaten dit sarri: "Plagio erabateko artea da". Berak askotan egi-ten ditu sindikatuko kartelak. Alegia, nondik atera ideiak? Besteen ideiak har-tzen dituzu, eta beste zer edo zer sor-tzen duzu, inola ere kopiatu gabe.

Literaturara itzuli zarela esan dezakegu?

Bai. Elkarriketaren hasieran, errealita-tetik salbatzeaz aritu gara. Beharbada, errealitatea beste prisma batetik begi-ratzen ikasi behar dugu. Igual kontua da nork bere burua berrasmatea. Ez dut uste, inork gehiago eskatzen ahal dionik bere buruari. Ni nire burua inbentatzen ari naiz berriz ere. ■

» "Emakumea naiz eta hautu kontzientea egin dut, emakume izaeraren inguruan hausnartzea"

» "Errealitatea beste prisma batetik begiratzen ikasi behar dugu"

» "Garatzen duzun identitatean zerbait arraroa dagoela sumatzen duzu, bertoko zara, baina inor ez da bertokoa, mundu guztia beste toki batekoa da"

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ibilera baten oinatzak



Amaia Serrano Mariezkurrena

Duela hogeit hamar urte argitaratu zuen Andoni Egañak *Pausoa noiz luzatu* eleberria, Joseba Jaka beka lortu ostean. Izenburu iradokitzailekoa, gaiaren aldetik ezberdina, eta idazmoldeari begira ere, landua.

Nabari zaio Egañari ahozko hizkerako maisutasuna, pertsonaien ahotan jarritako esapideek borobiltzen baitute eleberri honen alderdirik literarioena (egitura narratiboa, narratzaile aldaketak, narrazio- eta fikzio-denborak, eta abar). Gertaera ilunei jarritako umoreak eta ironiak errealtatearekiko begirada zorrotza duen idazlea irudikatzen garamatza. Behatzailea ez ezik, inork begiratu ez duen lekuetara eta inork ez bezala so egiten duena.

Militar batzuek Jakan egindako Errepublikaren aldeko altxamendua (1930) eta 1960ko hamarkadan Zarautzen sortutako Lanbide Heziketako ikastetxeko errealtatea dira eleberriko bi plano nagusiak. Batetik bestera jauzika, narrazio lineala guztiz puskatuta dago. Denbora-salto horiez gain, narratzaile ezberdinen ahotsek ematen dute gizarte hautsi baten berri. Zati horiek bilduz doaz, haria galdu gabe eta pertsonaia bakoitza bere tokian kokatuaz.


Ez da inondik inora eleberri manikeoa, taxu askotariko pertsonaiek betetzen baitute. Bada, ordea, pertsonaia guztiak lotzen dituen bat: Frai Kandido, Zarauzko eskolako zuzendaria. Izaera konplexukoa, koherentzia bizi nahi duena, baina errealtateak kontraesanean jarri duena. Frai Kandidoren iragana ez ezagutzeak dakarren misterioari lotzen zaizkio haren inguruko esamesak, nahiz eta ezjakintasun

Pausoa noiz luzatu

ANDONI EGAÑA

Alberdania, 1998

Andoni Egaña Makazaga bertsolaria eta idazlea (Zarautz 1961).



horrek hauspotzen dituen iritziek talka egiten duten haren benetako iraganarekin. Ezkutuko kontuak gorabehera, erabakiak hartzeaz gogetarazten duen eleberri honetan, irudipena dut Frai Kandidoren apaizteko hautua ez dela hain garbi geratzen.

Literaturari eginiko keinuak ere badira. Egoeren osagarri sinboliko bihurtuz, egoki txertatzen dira narrazioan zenbait olerki eta obren aipamenak; esaterako, Machado, Lorca edo Celaren *La familia de Pascual Duarte* (1942). Alabaina, eleberri polifoniko honetan zenbait ahots faltan izan ditut, ezen gizonezkoen munduak erakusten zaizkigu bertan (militarra eta apaizena), bakanak izanik emakumezkoenak; bestelako oihartzunak ere ezin aurkitu ibili naiz, batez ere idazle edota errepublikazale euskaldunena. Ezin eskatu dena, ordea, eleberri bati; baina honetan irakurleak badu non gozatu. ■

» MUSIKA & DANTZA

Flamenko feminista



Montserrat Auzmendi del Solar

Sara Barasen espektakuluak ikustea beti da plazera, dudarik gabe. Bere estetika garbi eta estilizatua, perfekzio teknikoa eta, orokorrean, gustu bikaina, Barasen ezaugarri nagusiak dira. Halere, hortik aparte, zentratu nahi nuke nire arreta alderdi zehatz batean: bere ikuskizunean emakumeari ematen dion paperean hain zuzen ere.

Ezin dugu esan flamenkoan emakumeek ez dutenik rol protagonista. Bai, askotan flamenkoaren munduan andre pasionatuak agertzen dira, indartsuak ere bai, baina ohikoa da haien etorkizuna gizonek baldintzatua izatea. Sara Barasek planteatzen duen emakumea ez da horietakoa. Emakume indartsua da, eta ez du bere burua gizon baten ondoan neurtzen, edo gizonaren balorazioa kontuan hartuz. Bilbon eskainitako *Sombras* muntaiari haxe irakurri genuen eskuko egitarauan: “Esango dut behin itzal izan nintzela, inguratu, handia, txikia (...). Itzalak nigan, itzalak nigandik...”.

Espektakuluak ez zuen argumenturik, baina kateatzen ziren eszenetan emakumearen go-goetak irudikatzen dira, bere burua menderatzen duen emakume baten pentsaketak, gizonaren inongo erreferentziarik gabe. Ohiko flamenkotik urrundu egiten da Baras beste ikuspegi bat eskaintzeko.

Sombras

Zuzendaritza eta koreografia:

Sara Baras.

Artista gonbidatua:

José Serrano.

Musika: Keko Baldomero.

Bilboko Arriaga Antzokia.

Irailaren 22a.



Alderdi kontzeptuala alde batera utzita, Sara Barasek burutzen dituen emakumezkoen eta gizonezkoen koreografiak oso berdintsuak dira, oso estilizatuak, esan bezala, baina inongo topikotan erori gabe. Barasek izugarritzko birtuositatea du zapateatuan, dantza basatia egiten du, eta aldi berean dotore eta estetikoa. Bestalde, talde osoaren exekuzioa akatsgabean

izan zen. Momentu batzuk azpimarratu beharko genituzke: Sara Barasek eta José Serranok dantzatutako balsa, Keko Baldomero eta Leonard Cohenen musikarekin, benetan zoragarri eta iradokitzailea, baita Serranok dantzatutako tango apartak ere. Sekulako dantzaria da Serrano, pasionatua, teknikoki perfektua, eta kemen berezia transmititzen du.

Gainontzeko guztia, goi-mailakoa. Luis F. Dos Santos jantziak ametsetakoa ziren, oso eleganteak; Óscar Gómez de los Reyesen argiztapenak giro egokia lortu zuen uneoro eta Israel Fernández eta Rubio de Pruna kantariak aktuazio apartak egin zituzten.

Sara Pereyra Baras flamenko dantzari eta koreografoa, (San Fernando, 1971).



66

DONOSTIAKO ZINEMALDIA

SAIL OFIZIALA

Esperimentu bat irabazle, erraldoi digitalak sumatzen hasi diren edizioan



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

ARGAZKIA: ALEX ABRIL

Zarata handirik egin gabe, Isaki Lacuestak dagoeneko bi Urrezko Maskor eskuratu ditu Donostiako Zinemaldian hamarkada honetan. Lehenbizikoa aski eztabaidagarria iruditu zitzaidan, 2011n Sail Ofizialera ekarri zuen *Los pasos dobles*-i asmo handi samarreko lana izatearen traza hartu bainion; intentzio puztu samarrak, gero zehazgabetsuan itotzen zen pelikula batentzat.

Justu kontrakoa esan behar dut, ordea, aurren podiumera eraman duen *Entre dos aguas* filmaz, zeina adibide bikaina den erakusteko apustu zinematografiko arriskatu batek ez duela zertan bilakatu publikoari ulertzeko zaila egingo zaion artefaktu kriptiko bat.

Errealitatearen eta fikzioaren arteko mugan, dialogoetan aktoreen benetakoitasuna zuketzen duen proposamen batekin, lehiaketan ikusi ditugun gaitortzeko filmak baino koska bat gorago geratu da *Entre dos aguas* eta konfirmatu du sasoi oneko dagoela zinema egiteko modu hori, gidoiaren gerruntzetik askatzen dena, filmatu ahala kontatu nahi duen istorioa bilatzen duena;



Isaki Lacuestak 'Entre dos aguas' filmari esker irabazi du Urrezko Maskorra.

errealitate gordina pantailaratu nahi duena, baina ikusleari zer pentsatu behar duen apaizkeriaz agindu gabe.

Saririk gabe ere, pozgarria izango zen Lacuestaren filma Sail Ofizialean proiektatzea, "naturalagoa" lukeen Zabaltegi-Tabakaleran beharrean. Lengoia zinematografikoak badituen, baina askotan esploratzen ez diren aukeretan murgilduko diren lan gehiago eskertuko genituzke lehiaketan, izan ere, aurren, beste behin, titulu konbentzionalegi batzuk sartu dizkigute benetako gauzetaz hitz egiteko bokazioa beharko lukeen sekzioan –banketxeko mailegu ideala ere erakutsi dute Donostian: zero interes daukan *Illang: The Wolf Brigade*–.

Zergatik? Pista onenak filmen hasieran agertzen diren enpresen izenak dira. Adibidez, aipatutako azpi-produktu korrearra Sail Ofizialean egotea ez da esplikatzeko, ez bada Netflixek dauzkalako haren banaketa-eskubideak, Perlak saillean ikusi ahal izan den Alfonso Cuarónen *Roma*-renak bezalaxe. Bigarrena Donostiara ekartzeko pagatu beharreko bidesaria izan ote da lehenbizikoa?

Bai, beste zine jaialdietan bezala, Zinemaldian ere hasi da nabaritzen plataforma digitalen presentzia –lehiaketan parte hartu duen *Beautiful Boy*-ren eskubideak ere Amazonenak dira, adibidez–, eta kontua ez da horien agerpenarengatik tremendista jartzea, ekoizleek eta banatzaileek mota honetako jaialdietan eragiteko gaitasuna ez baita gauza berria ere. Baina gezurretan ariko ginateke erraldoi berriok pilatzen ari diren boterearekin kezkatuta ez gaudela esango bagenu.

Non geratzen da euskal zinema horren guztia erdian? Aurren Telmo Esnalen *Dantza* lehiaketatik kanpo geratu da, aparte samar; Koldo Almandozen *Oreina*-k eman du zeresana; eta inoiz baino euskarazko titulu gehiago proiektatu dira, baina bultzada handiagoren faltan, beti hasten ari den zinemagintza baten itxura dauka euskarazkoak. Zaila izango du banatzaile handien sarean sartzea. Are zailagoa, horretan lagundu behar lukeen Jaurlaritzak festibalean promozionatu duena gure gastronomia izan bada, ez zinema. ■

» Irakurri Zinemaldiko pelikulen kritikak
www.argia.eus/zinemaldia-2018 helbidean.

PUBLIKOAREN SARIA

Kapuściński garaile



Mikel Garcia Idiakez
 @mikelgi

Ez da ohikoena animaziozko dokumental batek lortzea publikoaren saria. Baina *Another Day of Life* ere ez da ohiko animazio lana. Hasteko, Ryszard Kapuściński gerra-kazetari handia duelako abiapuntu (haren *Egun bat gehiago bizirik* liburua eta hitzak ditu oinarri pelikulak), eta gainera, Raúl de la Fuente nafarrak eta Damian Nenowk zuzendutako obra gai delako, animazio bidez, ikuslea hasieratik amaierara harrapatzeko eta Angolako gerran bete-betean sartzeko; gerraren horrorea, geopolitika, konpromisoa, memoria eta gizatasuna pantailaratzeko.

Kazetaritza hizki larritan. Horretaz ere badihardu filmak. Azken finean, Kapuściński kazetari poloniarren bizipenak dira mamia: badoaz kolono portugaldarrak Angolatik eta independentzia aldarrikatzear da herrialde afrikarra, baina berau gobernatzeko gerra betean dago herri xehea batetik (errusiarrek eta kubatarrek babestuta) eta estatu-batuarrek/CIAk ordaindutako indarrak bestetik, eta egoera bertatik bertara eza-gutzera joan da Kapuściński. Munduari kontatu nahi dio benetan gertatzen ari dena, herriaren alde bizitza ematen ari direnak ahanzturan erori ez daitezen, zanpatuen, txiroen, ahulenen memoria gorde dadin. Kazetari eta/baina pertsona den heinean, noraino iristeko prest dagoen ere kontatuko digu filmak.

Tarteka, animazioarekin batera garaiko irudi erreala eta protagonistak



"Another Day of Life" filmak lortu du Publikoaren Saria.

eurak (bizirik jarraitzen dutenak) hezur-haragizko agertzen zaizkigu, garai hura eta bereziki Kapuściński nola gogoratzen duten azalduz. Estilo eta formatu uztarketak lagundu egiten dio istorioari, eta omenaldi bikaina egiten dio periodista poloniarri.

Euskal gidoi onenaren saria ere lortu du filmak. Eta publikoaren beste sari-tuak ere, Lukas Dhont zinegile belgiarren *Girl* pelikulak, bi golarde eskuratu ditu, ikusleen iritziz Europako lanik onena izateaz gain Sebastiane saria (LGBTI komunitateak ematen duena) jaso baitu. Ez gaitu harritu, hain da soti-la *Girl*, hain da ñabarduraz betea, keinu txikiz, inplizituz, gordinez josia. Zakilarekin jaio den Lararen sufrimendu isila, gorputz arrotzean bere burua eza-gutuzten ez duen nerabearen bakardadea, edertasun handiz narratu du zuzendaria eta bikain antzeztu Victor Polster

aktoreak; ezinezkoa da protagonistarekin ez enpatizatzea. Baletaren erritmoa, identitatea, esfortzua eta obsesioa bezalako gaiak jorratzen ditu istorioak, balet dantzaria izan nahi duen eta sexuz aldatzeko tratamendua abiatu duen Lararen ikuspegitik.

Gainerakoan, pelikula aipagarri ugari ikusi ahal izan ditugu Publikoaren Sari-rako hautagaien artean. *Pájaros de verano* kolonbiarrean, diru-gosea, pasioa, familia, ohorea, mendeakua... gurutzatzen dira hiru belaunalditan zehar, tragedia handien gisan; emakumeek Iranen jasaten duten zapalkuntzaz ohiko tonu umorez zipriztinduan dihardu Jafar Panahik *Se rokh* filmean; eta bizitzak gogorturiko mutiko azkar eta leialaren istorioa dakarkigu Nadine Labakik, Libanoko kaleetan bizirauten saiatzen den umearen errealtate bortitz eta krusdela: *Capharnaüm*. ■

Katti Pochelu. Zine geletan eragin nahian



JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Dena da egiteko

"Herrian, baina biziki guti, oraindik hastapenean gara, ez da batere gara-tua. Bistan da hemengo erakundeek beharko dute goiz ala berant –goiz espero dut– haien esku hartu zinema politikaren garapena. Frantziari doakionez, zinemagintza gehiena Parisen da eta sektorea eskualdeka antolatua izanki, gu Akitania Berrian kokatuak gara, beraz Bordelen da gehiena gertatzen. Zinema politikarik ez dugunez hemen, ez da gauza askorik gertatzen".

Gastibeltza Filmak, euskal zinema ekoizteko eta banatzeko helburuarekin sorturiko enpresa berriaren langilea dugu Katti Pochelu hazpandarra. Maiatzean aurkeztu zuten egitura berria eta buru-belarri dabilta orduz geroztik, Senperen kokaturiko bulegoan: "Behintzat alde horretatik ez gara pobre, lana badugu", dio irriz. Euskal zinemagintzaz aritu gara hazpandarrarekin, gaur egungo egoeraz zein biharko nahi lukeen errealitate kulturalaz.

"Badakigu euskal zinemak publikoa duela Ipar Euskal Herrian"



Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa_B

Zinegin festibalaren antolaketan zabiltza aspaldian.

Ikusle gisa hurbildu nintzen hastapen batean. Berehala gustuko ukan nuen, zinemagintzarako ekitaldi polita zitzaidan eta Ipar Euskal Herrian euskal zinema ikusteko paradarik ez genuenez inportantea zitzaidan hori aitzina eramatea. Ikusten nituen euskal filmak, baina ez nahi bezain beste eta aldi oro Donostiara, Irunera ala beste zinema batera joan behar izaten nuen. Horregatik sartu nintzen antolaketan dabilen Eihartzea elkartearen. Gainera, Hazparnen iraganik eta hazpandarra izanki, kontent nintzen, hurbila nuelako.

Zerk egiten du zuretzat film bat film on?

Hunkitzen nauten filmak ditut maite, baina arrazoi desberdinengatik hunki nazake film batek. Ez dakit sobera, irekia naiz estilo desberdinei. Uste dut ere umorearen eta egunaren arabera gauza desberdinek hunkitzen nautela.

Gastibeltza Filmak egituran zabiltza orain. Zinema politika bat nahi zenukete ikusi Ipar Euskal Herrian ere.

Politika hori bultzarazi nahian gabilta. Nahi dugu hemendik ere zinema gartztea, zinema ekonomia ttipi bat muntatzea, teknikariak hemen formatzea... guztia hemen, ez joan behar izateko hemendik kanpo. Egingarria da, baina hori politikariaren esku da eta erabakia haiei dagokie hartzea.

Zer erranen zenioke kargudun bati, konbentzitzeko orduan?

Betiko debatea dugu ea kulturak lurralde bati zerbait ekartzen dion ala ez. Kulturari ari garenok argi dugu baietz: dinamika bat ekartzen dio lurraldeari, lana sortzen du, dirua ere ekartzen du, tokian berean mugitzen delako jendea, lekuko enpresekin lan egiten dugulako... Horrez gain, kulturalki hemengo errealitatea kanpora eramateko manera da; horrek ere gaitu gu konbentzitzen. Erraza da film bat ikustea edozein herrialdetan, horrentzat laguntzak eta nahikeria behar dira, baina berez, eramaten ahal dira euskal filmak Parisera, Errumania-



GASTIBELTZA FILMAK

ko hiri batera edota Poloniako herri ttiki batera.

Nola doa Gastibeltza Filma?

Dena plantan ematen ari gara oraindik. Alde batetik, gure egituraren antolatzen gabiltza, bestetik, partaidetzak plantan ematen eta mugiarazten. Euskal Herri guztiko erakundeekin ari gara, politika bat bi aldeetan pentsatzeko eta biak lotu ditzakeen zerbait osatzeko. Proiektuen aldetik ere ari gara karraskan. Aurkeztu ditugun bi koprodukzio (*Jainkoak ez dit barkatzen* eta *Gure oroitzapenak*) Donostiako Zinemaldian hautatuak izan dira, arrakastarekin. Beste dokumental batean ere ari gara koproduktore gisa eta segitzen dugu aitzina, orain hasiko gara proiektu berriei. Hego Euskal Herriatik ere ditugu proposamenak produkzioak egiteko, filmak banatzeko... Bederen alde horretatik ez gara pobre, lana badugu! [irria] Egia da ilusio handia dugula, proiektua aurkeztu genuenetik biziki harrera ona dugulako.

Ipar zein Hego Euskal Herrian.

Bai, hemen jendeak ikusten duelako di-

"Egia da ilusio handia dugula, proiektua aurkeztu genuenetik biziki harrera ona dugulako".

namika bat ari dela sortzen. Ez gara bakarrik ez eta lehenak, baziren beste batzuk, baina hara, garapenak segitzen du. Hego Euskal Herrian ere, senditzen dutelako azkenean Ipar Euskal Herrian ere hasten direla gauzak mugitzen eta ikusten dutelako partaide berri bat, haien filmak laguntzeko, bai ekoizpenean, bai banaketan.

Zergatik da hain arraro euskal film bat kausitzea Ipar Euskal Herriko zinematan?

Uste dut gehienbat ezjakintasun ala ezezagutza bati lotua dela. Hemengo zinemak ez dira baitezpada euskal kulturatik hurbil, ez dira usatuak euskarazko filmen ikusteari. Banaketa esperientzia bat bada, baina film bat ala bi dira urtean proposatzen, biziki gutti. Proposamena zabaltzea dugu helburu, euskal zinemaren dagoen aniztasuna erakutsi nahi dugu. Badakigu publikoa badela euskal zinemarentzat, Zineginen esperientziak erakutsi digu, beste film batzuekin ere ikusi izan ditugu gelak betetzen. Publiko

horren xerka joan behar gara. Programetan maiztasun bat segurtatuz da euskal zinema ezaguna bilakatuko.

Euskal zinemaren normalizazioa bilatzen duzuela entzun nizun.

Bai, izan dadila hitzordu normal bat. Programazio bat hartzen dugunean baditugu film espainolak, amerikarrak, errumaniarrak, aitzinkontu ttipi batekin egindako Hego Amerikako film batzuk... horri usatuak gara. Gauza bera egin daiteke euskal zinemarekin, baina usaia hori dugu falta.

Ipar Euskal Herrian kokatuz ez duzue toki errazena hautatu.

Behar da nonbaitetik hasi, badakigu egin daitekeela hemen ere eta guk hori dugu xede. *Muga* hori erabili nahi dugu, behingoz erabilgarri eginez: ekoizpenerako, Frantziako eta Ipar Euskal Herriko finantzamenduen bilatzeko, baita hegoaldekoek Hegoaldeko eta Espainiakoak bilduz ere koprodukzio bat egiteko. Banaketaren garapenaren aldetik ere hemendik egin dezakegu, Hego Euskal Herriatik nekezagoa litzateke. ■



Euskaldunek berriz ere sentitzen dute katalanak baino gehiago direla, U-1etik urtebetera

Katalunian 2017ko urriaren 1ean egin zuten independentzia-erreferendume-tik urtebete pasa denean, euskaldunek berriz ere sentitzen dute badirela katalanak baino “zer edo zer gehiago”, Giza-huntz inkesta-etxearen ikerketa baten arabera. “Urriaren 1ean independentzia lortzeaz zeudela ikusita, katalanekiko gutxiagotasun konplexua izugarri hazi zen euskal herritarren artean, baina ondorengo gertakariak ikusita, beheranzko tendentzia horri buelta eman zaio”, txostenaren egileek ziurtatu dutenez. Euskaldun independentistak dagoeneko katalanak baino “gehixeago” direla sentitzen dute. Gainera, 1978tik iazko urtera arte bezala, inkestari erantzun dioten gehienek uste dute Euskal Herriak lehenago lortuko duela independentzia Kataluniak baino. Hori lortzeko bideari buruz galdetuta, euskaldun




Ikurriña esteladaren gainetik jartzen hasi dira berriz euskaldunak, pixkanaka.

gehienek “ez daki/ez du erantzun” aukeraren alde egin dute. %1,3 batek uste du EAEko Estatutu Berriari esker lortuko dela, inkestatzaileak ere barrez jarri dituen erantzuna.

SAREAN ARRANTZATUA

Mesedex, faborex, harren eta hotoi



Itzultzaileak gainerakoa behar du



Elitearen prekarietatea leuntzeko baliatuko da Kilometroak-eko dirua

“Badakigu lortutako milaka euroak ez direla nahikoa izango euskara lau haizetara zabaltzeko, baina tira, oinarritzko eskubide batzuk asetzen baldin baditugu, gu kontentu”, adierazi digu Mertxe Sosek, Urretxu-Zumarragako ikastolako andereñoak. “Erosiko ditugu: Googleko egoitzetan duten txirrista horietako bat, irakasleonek bulegotik kafe-makinara zuzenean jaisteko; irlandes eta eskozesak prestatzeko gai den makina, larrialdietarako masaje-zerbitzua eta txokolate

-bainuak hartzeko gela bat. Hori guztia sare publikoko burkideen bizi-kalitate-ra hurbiltzeko. Eta euskara sustatzeko ere bai, prefosta”.

Festa-mota aldatzera doala-eta, makro-festivalen ereduari ahalik eta zuku handiena ateratzeko prestatu dute igandekoa: beherapenak era guztietako katxi eta txupitoetan, kastellanoz kantatuko duten hip-hop talde moloia, Gatiburen sei kontzertu aldi berean, *youtuber* ezagunen monologo matxistak, Realeko



gizonezko futbolarien alegrantzia, Fran eta Zuriñeren muxu banaketa... “Geroztik eta zailagoa da gazteak engainatzea; boluntario aritzea ezinezkoa bada, sikiera gasta dezatela gurasoen paga gurean, eta ez Eroskiko likore-apalategian”.



**Zer
emateko
prest zaude?**

**Eta zer
jaso
nahi duzu?**

**INDARTU DEZAGUN INDARTZEN GAITUENA
EZAGUTU HARPIDETZA EREDU BERRIA**

☎ 943 371 545

www.argia.eus/eginargiakoa

🐦 #ArgiaJendea



BLACK IS BELTZA

ERAKUSKETA

2018-06-15//2018-11-18

San Telmo Museoa

Laborategia | Sarrera dohainik

Zuloaga Plaza, 1. 20003 Donostia / San Sebastián. www.santelmomuseoa.eus

Antolatzailea:

STM
San Telmo Museoa

 **DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

 **donostia
kultura**

Proiektua:

 **TAIKA**
REALIZADO BY M.S.

Az
Azkuna Zentroa
Ahaztegitik